


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Urriak 18, 122. zenbakia


Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**MARCOS
ROITMAN**
V. Mendeurrenaz
hizketan


Merkadiloan

Jendea salerosketan eta ikusmiran



A R R A S A T E
K I R O L A K

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12



Institutuko argazkilaritza-ikasleak

N

olakoa ote da galtza beltzeko emakume hori? Edo gizona ote?

Ile hori artifiziala duen kaletar ahula izango da? Baserritar sendoa? Sudur eta belarri handi zatarrak izango ditu ala txiki eta polittak? Izango du belarritakorik? Nolakoak, ordea? Aberatsei dagozkienak? Zaharrenak?

Jazkera eta jarreragatik gaztea dirudi, bai-

na benetan gaztea ote da? Haserre izango da, pozik ala triste? Begi berde, urdin, gris edo metalikoeak begirada samurra ala gogorra erakutsiko dute?

Hutsik egiteko beldur barik, nork egin dezake egiaren aldeko apustu eta esan, "neska beltzaran, panpin-aurpegikoa eta atsegina da"? Irudimenaren askatasunerako giltza dirudi.

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate 79 98 94

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua

Santa Cruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

ARRASATE PRESS



77 05 65



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENTZIA

ITURRIOTZ, 23 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxa: 77 14 27

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarría, Agurtzane Loidi.

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaráia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Komunikazioaren zientzia

Aste honetan Bermeorako bidea hartu dute zenbait haur arrasatearrek, bertan egun pare bat igarotzeko asmoz, itsas eta arrantzale-munduarekiko hurbiltze didaktiko interesgarriak bultzatuta. Beren heziketa-prozesuan oso aberasgarri gertatuko zaielarik, ume horiek lehen aldiz "ukitu" ahal izango dute oraintxe arte urruneko erreferentziaz bakarrik ezagutzen zuten arloa.

Haurrek eta helduok ere komunikazioaren bitartez ikasten dugu. Esperientzian oinarrituriko komunikazioak, berriz, areagotu egiten digu ikasitakoaren jabetza. Haurraren kasu, piztutako sentsazio atseginak teorizazio guztiak txiki uzten ditu. Ikusi eta ikasi, arrakastatsu gertaturiko abestiaren mezuak oroiteratzen zigun bezala. Errealitatearekiko hurbilketa serioak eragin baikorra du, ikasi nahi duenarengan. Eta gure egunotan ez dira gutxi gure umeei aurkezten zaizkien aukerak. Hamalau-hamabost urte genituela, natur zientziak ikasi beharrak gure lehen ibilaldi pedagogikoak egitera Santa Barbaratik abiarazten gintuenean, gure gurasoen harridurak iraganeko giro eskolastikoaren ezaugarriak azaltzen zituen.

Beti izan naiz museoen zale. Baina, zalantzarik gabe, badira desberdintasun nabariak batzuk eta besteak zaindu eta promozionatzeko iritzietan. Museoa, oro har, baliagarri daitezkeen gauzen aukeraketa eta bilketa eratzeko egoki

den toki hutsa dela uste duena oker dago. Horretaz aparte, museoak konpartitu egin behar ditu balorezko bitarteko horiek; osterantzean, komunikazioak ez luke helburua erdietsiko. Museoak, diot, zientzia hedaterazteko bilgune aproposak direlako, hain zuzen ere. Baina, nire ustez, kategoria berdinean sar genitzake bizi-bizirik dirauten beste erakundeak ere, pribatu zein publikoak: elizak, udaletxeak, lantegiak, jauregiak, ospitaleak, natura bera...

Museoei buruzko kontzeptuak iragan erreferentziagarri baten irudia ekarri digu sarri gogora. Ez luke horrela izan behar. Lehenik eta behin, museoen helburua komunikazioa da, baina ez alternatiba gisa, gainerako azpixedeen zuzentzaile bezala baizik.

Horrexegatik, museoak —eta izen hori ez daramaten arren, zientzia aplikagarria darakusten antzerako erakundeek— etorkizunaren bidea prestatu behar digute era atsegin eta erosoz. Museoak, edozein erakustegik bezala, bi norabidetako jariora izan behar du, bere oinarrian zaharki ez dadin. Aldiz, "ateak zabalik" delako politika burutsuak sarrera-irteera binomioa errazten du, ezagupidetarako igarobidea egokituz. Erakustegiaren sustraiak egunez egun indarberrituko lirateke guztion eskaintza eta emariaz.

Gure umeen heziketa-prozesuak haien irudimena aberastu behar du, komunikazioaren bitartez.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

LILURA

zeure moda
diselnatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta, 5 etxabea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE

comercial san juan

Garibal, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta oparidenda

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde, 23-2. Ezk.
ARRASATE Tfnoa: 79 96 90

Bazen garaia!

Azkenean, porlanez bete dizkirate Eskualdeko Ospitalearen aurrean zeuden zulo zaharrak. Urte bete inguru zeramaten hor zulo horiek. Lanak behartuta, asteburuetan ezik, ia egunero pasatu behar izaten nuen handik. Hainbeste alditan pasatu naizenez bertatik, ia maitemindua nengoen zuloekin. Izugarritzko poza hartzen nuen, bertara iritsi eta bestaldetik beste autoren bat zetorrelako zulo zaharretan sartzen nintzenean

neure autoaz; batez ere gurpilen kubiartek eskertzen zizkidaten horrelako susto xarmangarriak. Beste batzuetan, zuloek ez gintuzten (ez autoa, ez kubiartak, ezta neu ere) harrapatzen eta azken orduko manio-bra trebe baten ondorioz alde batera uzten nituen.

Kostatu zaie, baina azkenean kendu didate eguneroko entretenimendu hori. Behar bada autoak eskertuko dio norbaiti.

Peñiskola



Komunikabide batek ez omen du gehiegitan bere buruaz hitz egin behar, baina bestalde bidezkoa da aldizkaria nortzuk egiten dugun jendeak jakin nahi izatea. Iñaki Galdosek agur esan digu, baina adiorik ez, eta bere laguntza izatea espero dugun arren, behar genuen ordezkorik, eta **Agurtzane Loidi** bergararra etorri zaigu, argazkian erdikoak; ongiatorria bedi urte askotarako! Beste biak, **Izaskun Heriz** eta **Xabier Mujika**, lau hiletarako bekadunak dira, ETEO eskolakoa. Onuragarria bedi egonaldia beraientzat eta guretzat!

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, krocketak eta piper kazolak prestatzen ditugu
Mondragones, 7 (Azoka ondoan) ARRASATE Tfnoa: 79 93 07

Zenbat, zer eta zergatik irakurtzen duzu?




Antonio Baskaran
(Jubilatua)

Egunkaria irakurtzen dut gehienbat. Liburuak oso garestiak dira eta irakurtzea gustatuta ere, liburu bat ezin da erosi.



Olatz Larrañaga
(Ikaslea)

Asko irakurtzen dut, eskolan bidaltzen dizkidaten liburuak eta gehiago ere bai. Edozer gauza irakurtzea gustatzen zait.



Juan Jose Yarza
(Langilea)

Ez dut gehiegi irakurtzen, apur bat bakarrik, baina hori bai! denetarik. Denborapasarako irakurtzea gustatzen zait.



Agustin Olaizola
(Ikaslea)

Eskolan nabilen bitartean ez dut irakurtzen, baina uda partean bai. Harrapatzen dudana guztia irakurtzen dut gainera, asko gustatzen zait eta.




Izaskun Olaizola
(Langilea)

Askotan, irakur barik pasatzen ditut hilabete batzuk eta beste bolada batzuetan liburu-piloa irakurtzen dut. Denetarik irakurtzen dut, azkenekoa Shogun izan da. Asko gustatzen zait, gaez batez ere.



Ana Goitia
(Ikaslea)

Bai asko irakurtzen dut, batez ere abenturazko liburuak. Pila bat gustatzen zait irakurtzea, oso ondo pasatzen dut eta.



Koop. E.

Alemana

Haurrak

Maila guztiak

Frantsesa

Gazteak

Azterketetarako prestakuntza

Ingelesa

Helduak

Ohizko ikastaroak eta trinkoak

Araba Etorb. 4 ARRASATE Tfnoa: 79 01 32

**I
R
A
T
I**

**Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80**

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Artzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
--	----------



18

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai: "Enemigos a love story" (10.30)
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

19

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai: "Colmillo blanco" (5-7.30-10)
- Erritmoaren festa, gaueko 10etan Monterronen.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

20

IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai: "Colmillo blanco" (7-10)
- Argazki-erakusketaren inaugurazioa Monterronen.

Kirol Agenda

Eskubaloia

• • •

- Igandean 12.30etan Musakolako polikiroldegian Arrasate Kirolak-Pasaitarra.

Saskibaloia

• • •

- Larunbatean arratsaldeko 6etan Musakolako polikiroldegian Centraljet Eskal Air-Lanas Stop emakume-taldeen arteko partidua.

21

ASTELEHENA

• • •

- Goardiako farmaziak: Amezua, Santamaina.
- Zinea: Alai: "Colmillo blanco" (7-9.30)
- Hitzaldia, "Ekonomia zuzenagoaren bidetik...", arratsaldeko 8etan Parroki Etxean Jesus Larrañagak emana.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

22

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai: "Colmillo blanco" (7-9.30)
- Hitzaldia, "Ekonomia zuzenagoaren bidetik...", arratsaldeko 8etan Parroki Etxean Antoni Oriolek emana.

- Besaide Elkartearen bilera, arratsaldeko 8etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

23

ASTEAZKENA

• • •

- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

24

OSTEGUNA

• • •

- Zinea: Amaia: "Corazón de medianoche" (8.30)
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

Futbitoia

• • •

- Zaldibarko Txapelketaren barne, partidu ugari larunbat goizetik igande goizera bitartean.

Futbola

• • •

- Aretxabaletan, igandeko 12.30etan, Aretxabaleta eta Arrasateko emakume-taldeen arteko partidua.
- Igandean arratsaldeko 4etan Atxabalpen Mondra-Tolosa partidua.

Autobusak

• Nafarroa Oinez 91

AEDk antolatuta, Atarrabian izango den **Nafarroa Oinezera** joateko autobusa aterako da igandean, Garibai geltokitik goizeko 8.30etan.



Jaiak

• Erritmoaren jai

Bihar larunbata, hilak 19, "Erritmoaren Festa" delakoa burutuko da Monterron parkean gaueko 10etatik aurrera. Jaialdi hau Hazaldik antolatu du, Arrasateko danborrari-taldeak hain zuzen. Erritmoaren jaiaren barruan txalaparta saioa, antzerkia, Hazaldi taldearen ekitaldia eta Florios Konbo taldearen saioak entzun, ikusi eta dantzatzeko aukera izango da.



Jaialdi honetan parte hartzeagatik 300 PTA ordaindu beharko dira. Eguraldi txarra egiten badu, jaialdia Monterron parkean egin beharrean Amaia antzokian egingo da.



ERAKUSKETA

New York-Guatemala argazkitan

Datorren igandean, hilaren 20ean hasi eta 30era arte Monterron Kultur Etxeko Erakustokian, argazki-erakusketa izango da Joseba Vallesen eskutik. Argazki-erakusketa honetan, argazkilari arrasatear honen hogeitamar lan ikusteko aukera izango da. Vallesek, bere erakusketa bi zatitan banatu du, bata Guatemalari eskainia eta bestea New York-i.

Erakusketan, aipatutako bi tokietan iaz Joseba Vallesek egindako argazkiak ikusi ahal izango dira. Guatemala eta New York-eko paisaia ezutuak, hiriko bizitzaren ikuspegi desberdinak eta bertako jende arrunta Monterron Kultur Etxeko erakustokian izango dira egun batzuetan. ASA taldeko eta Arrasate Presseko argazkilaria den honek, erakusketa osoa zuri-beltzeko argazkiekin osatu du.

Deiak

• Bilera

Besaide Mendizale Elkar-teak deia luzatu die 14 eta 18 urte bitarteko arrasatear guztiei, datorren asteartean, hilak 22, arratsaldeko 8etan Elkar-tearen egoitzan egingo den bi-

lerara ager daitezen. Bileraren helburua, gazteek gogokoan dituzten ekintzak egituratzea litzateke. Iaz, Besaideko ardura-dunek egitarau zabala prestatu zuten gazteentzat, baina ez zuten erantzun handirik jaso.

Iazko esperientzia horren ondorioz, aurten gazteekin harremanetan jarri eta beraien-



tzat motibagarri eta interesgarri izan daitezkeen ekintzak antolatzea pentsatu da. Besaidekoen ustez, gauzak horrela eginez gero, lortuko den partaidetza askoz ere handiagoa izango da.

• Kartilen bilketa

Jendeak, laster egingo diren zozketen aurka mugimendu antimilitarista eta objektzioan parte har dezan, **Kakitzatek** kanpaina bat burutuko da. Kanpaina horren barruan, kartila militarren bilketa egiteko asmoa dago. Bilketa, Garibai Etxean egingo da, Objektzio Bulegoan, urriaren 21etik 31ra.

Helburu berarekin, kartila militarrek biltzeko hain zuzen, hilaren 19an eta 26an mahai bat jarriko da Portaloian. Bestalde, **Kakitzatek** herritar guztiei zozketa eta militarismoaren aurka antolatuko diren ekintzetan parte hartzeko deialdi zabala egin nahi die.

Hitzaldiak

• Ekonomia zuzenagoaren bidetik...

Juan Pablo II.ak kaleratutako "Centessimus Annus" entziklikaren aurkezpena egiteko helburuarekin, Arrasateko Arzi-prestalgoko Helduen Batzordeak hitzaldi-sorta bat antolatu du.

Lerro hauek kaleratzen direnerako Fernando Iraeta, ELA sindikatuko ordezkariaren hitzaldia burututa izango bada ere, oraindik beste bi izango dira entzungai: astehelenean, urriak 21, kooperatibetako partaide den Jesus Larrañagarena, eta asteartean, urriak 22, Bartzelonako Teologi Fakultateko irakaslea den Antoni Oriol-ena.

Aipatutako hitzaldiak, Iturrioz Kaleko Abadetxean izango dira, arratsaldeko 8etatik aurrera. Edonork du hitzaldi horietara joateko aukera.

“Gainerako guztiok, ordea, pentsatzen dugu emankorragea eta merkeagoa izango litzatekeela guzti horiei (Arrasateko zinegotzi sozialistei) klaseak ordaintzea udal-euskaltegian edo AEKn, nahiz eta nik zalan-tzan jarri azken honetara joan nahiko dutenik; horrela, aukera izango lukete behingoz euskara ikasteko eta gainera nahi duena beraiekin euskaraz komunikatu ahal izango litzateke, zeren eta orain, gogo handia izan arren, zorioneko zinegotziek tutik ez dutela ulertzen ohartuko bait da.

Bada ordua, klaseetara joaten hasi diren beste alderdikideren batzuegandik ikas dezaten».

(Udalaitzpean. EGIN: 1991-X-11)

“1968 inguruan, behin ezkontuta emakumeak lana utzi behar izaten zuen, kooperatiben estatu-tuak horrela ezarrita. Etxeko lanaz eta umeez arduratzen zen, baina asko ziren etxetik kanpora beste zerba-it egiten jarraitu nahi zutenak. Nola tartekatu, ordea, bi lanok? Erraz; egun erdiz lan eginda”.

“Gerente izateko ez genuen emakumerik aurkitu, ezta mantenimendu-lanetarako ere, eta kamioiak kargatu eta deskargatzen ibiltzea astunegia da emakume batentzat”.

“Lehentasuna ematen diegu emakumeei, lana aurkitzeko eragozpen handiagoak ditugulako baina, batipat, kooperatibaren orain arteko ildoari jarraitze-ko. Gizonezkoak ere kontratatzen hasi gara, ez dugulako inor diskriminatu nahi”.

(Mari Karmen Iarritu. EGUNKARIA: 1991-X-9)

Lan Kide Aurrezkiak, zergatik egin behar du etxe berria Urkulu inguruan?



Otaloraren 260 metro karratuko eranskina, Lan Kide Aurrezkiak eraikitzen hasi dena, nahitaezkoa da Arrasate Kooperatiba-Taldeko zuzendari-prestakuntzarako, eta enpresak eta enplegua sortzeko.

Kasu hauetarako eskatzen diren baimen guztiak lortu dira, eta bai Gipuzkoako Diputazioak baita Aretxabaletako Udalak ere, ingurugiroari buruzko arazoak kontuan izan ondoren, obrak egiteko baimenak eman dituzte.

Ziur gaude Azatzako beste 50 baserrietako bat bezalakoa izango dela eraikin berria, ez duela inolako eraso ekologikorik suposatzen, ezta Urkulu urtegiari kalterik egiten ere, beronetatik 750 metrora bait dago, guztiz kanpo urtegiaren arrotik eta ingurunetik.

Zain Dezagun Urkulu elkartekoei atsegin eman nahirik, urtegitik eta Azatza bailarako ikuspegi nagusitik urrundu dugu, baserri-itxura eman diogu — inguru horretan eraikitako gainerakoei bezala— eta irakaskuntza ahalbidetzeko tamaina minimora murriztu dugu.

Lan Kide Aurrezkiak

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

E · S · T · U · D · I · O
I N T E R I O R I S M O A

- Proiektuak
- Diseinuak
- Obra-Zuzendaritza
- Berrikuntzak
- Erakusleihoen eraketa (Eskaparatismoa)
- Anagramak

Garibai, 3 bis
ARRASATE
Tfnoa: 77 01 44

Elgeta

• Asentzioko parke naturalaren plana onartua.

Elgetako Udalak, pasa den astean, Asentzioko parke naturalaren proiektua gauzatzea onartu zuen Plenon; HBk ezik, beste guztiak proiektuaren aldeko botoa eman zuten, eta ondorioz egitea erabaki zen. Proiektu hau oso eztabaidatua izan da, eta aurka azaldu direnen artean Angiozarko auzokoak, baserritarrak, ENHE sindikatukoak eta planarekin kaltetuak gertatzen diren beste batzuk daude. Errekurtsoei jaramonik egingabe, Udalak baietza eman dio proiektuari. 300m²ko jate-txea, 200 autorentzako aparkalekua, frontoia eta dagoen putzuan ur gehiago eta arrinak botatzeko asmoa dute. Honetaz gain, Asentzioko baseliza konponduko dute.



Antzuola

• Herri-jaialdia.

Larunbat honetan Antzuolan Kultur Batzordeak herriko artisten jaialdia antolatu du. Frontoian gaueko 10.15etan izango da. Bertan, txistulariek, dultzainariek, Korkoil taldeak eta beste hainbatek parte hartuko du. Honetaz gain, Amorrú, herrian sortu den musika-talde berriaren aurkezpena izango da. Aurten laugarren aldiz egiten da jaialdia eta beste urteetan bezalaxe primerako giroa izango da.

• Azaroaren 27an, igandean, Iparraldeko Ahierra herrikoekin herri-bazkaria antolatu da. Bazkaria jubilatuen tabernan izango da eta aurrez 1.600 PTA ordaindu behar dira; langabetuek 600 PTA bakarrik. Joan nahi duenak Jubilatuen tabernan eman dezake izena eta lehenbailehen apuntatzea komeniko litzateke.

• Xabier Azkaratek maratoi bikaina burutu zuen pasa den igandean Donostian. 33garren postua lortu zuen eta 2 ordu eta 31 minutu behar izan zituen maratokia bukatzeko, berak orain arte lortu duen markarik onena da. Gainera, bailarako lehenengo izan zen.

Bergara

• Azaro-Abendu Musikala.

Bergaran ospatzen den Azaro-Abendu Musikala urriaren 27an hasi eta Gabonetako kontzertuarekin abenduaren 20an bukatuko da. Urriaren 27an Jesus Guridi Musika-Eskolako talde instrumentalaren eta Gasteizko koralaren kontzertuarekin emango zaio hasiera; 30ean Finlandiako korala izango da, eta hurrengo egunean Norvegiako "Vinderen-Barnekor" korala. Azaroaren 10ean "Pablo Sorozabalen" haize-boskoteak, eta 15ean Kepa Junkerak eta bere taldeak hartuko dute parte. 24ean Bergarako udalbandak kontzertua eskainiko du. Aipatutako guztiak azarokoak dira, baina abenduan ere ez da faltako kontzerturik.



**LORAMENDI
BIROLAK**

**Dena daukagu negu-jantzletan:
txamarrak, forru polarrak, lumatxak,
GoreTex-ak...**

**Eski-materiala ere heldu zaigu.
PASA ZAITEZ HEMENDIKI**

Maiatzaren 1a Plaza. ARRASATE Tfnoa: 79 97 24

zeppelin



Loramendi, 3 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 74 09

**Carrión
música, s.a.**

- PIANOAK: Yamaha, Kawai, Rameau, Samick, Astor. (Prezio bereziak)
- MUSIKA-TRESNA ELEKTRONIKOAK: Yamaha, Roland, Korg, Casio, etab.
- EKIPO PROFESIONALAK

M. Iradier, 20 GASTEIZ Tfnoa: (945) 23 07 49

Erreskate-lanak

Larunbat honetan ere Arrasate Aretxabaleta eta Zarautz herrietako jendea irtengo da Pedro Aranburuzabalaren gorpuaren bila. Joan zen larunbatean Frantziako Landesetan bila aritu ziren baina ez zuten gorpurik aurkitu. Larunbat honetan ere laguntzeko prest dauden guztiak Herriko Plazan ager daitezke goizeko 8etan. Aste honetan batzuk Frantziako Landesetara joango diren bitartean beste batzuk Hondarribiatik Zarautzeraino kostatik zehar oinez ibiliko dira.

Kutxarako udal-ordezkarriak

Pasa den ostiralean izandako plenoan kutxarako lau ordezkarri aukeratu ziren: PSOEtik bi, Nekane Iglesias eta Paco Garcia, eta PNVtik beste bi, Marisa Larrañaga eta Juan Carlos Garitano. Puntu hau ez zegoen gai-zerrendan, baina PSOEek sartzea proposatu zuen, eta PNV eta PSOEko botoekin, sartzea erabaki zen. Bi proposamen zeuden, alde batetik, HB, EE eta EAk proposatzen zutena, orain arte zegoen moduan uztea. Bestetik, PNV eta PSOEek proposatzen zutena, lau ordezkarri aukeratzeari. Botazioa egin ondoren lehen aipatutakoa erabaki zen.

Eskailera hobetzea

Garibai Etorbidetik Zerkaosteta kalera dauden eskailerak hobetzeko Udalak Irurok enpresari eman dio enkargua, lan honek 151.000 pezatako aurrekontua duelarik.


Lokalaren lagapena

Joan den astelehenerako Gobernu Batzordean Arrasateko argazkilarien taldeari eta irratizaleen elkarteari Erguin kaleko 19garren zenbakian udalokala uztea erabaki zen.

Txandaka

QUO VADIS, INSALUD?

Abril ministrari-ohiaren txostenak jende asko asaldatu du. Bertan proposatzen diren zenbait neurri antipopularrek altzarazitako hautsaldiak ez liguke eragotzi behar txostenean dauden beste alderdi garrantzitsu batzuk ikustea.



Eukeni Olabarrieta (*)

“Abril Txostena”k, azken finean, PSOEek esan nahi zuena esaten du, baina alderdi hori ez zen ausartzen, zenbait neurri antipopular aplikatzeak hauteskunde-ikuspegitik duen kostuagatik. Hauxe dio, hain zuzen: osasun-arloak gero eta kostu handiagoa du, ez dago behar hainbat diru finantziatzeko eta, gainera, ia inor ez dago pozik berorren funtzionamenduaz, erreforma garrantzitsuak behar dituelarik, txostenean aipatzen direnak bezalakoak.

Txosten honen aurrean profesionalen, alderdi politikoen eta sindikatuen eritzia ezberdinak izan dira eta kontrajarriak, deskalifikazioak ere izan direlarik. As-


koren ustez, osasun-arloa pribatizatze bidea irekitzen du txostenak. Ez dago hain garbi, baina ez du bazterten sektore pribatua sisteman sartzea joko-arau batzuen barruan.

Txostenaren beste alderdi garrantzitsu batzuk honako hauek dira: gestioaren deszentrali-

zazioa, osasun-zentruen autogestioa, finantziarioaren egituraren aldaketak (gaur egun % 66a zergen bidez finantziatzen da, %30a kotizazio sozialen bidez eta gainerako % 4a beste sarrera batzuen bidez), gestio publikoa eta pribatua ahalbidetzea, etab.

Seguraski, epe laburrean ez da ezer aldatuko, baina badirudi jarri dutela gestioaren *desestatalizazio*-ra bideratutako eraldakuntza-prozesuaren lehen harria, eta lojizak gaur eguneko osasun-sistema baino arinago, konpetitiboago eta kalitate handiagokoren batera eraman beharko gintuzke berriak.

(*) *Lagun-Arokoa*



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

Osorik
pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate



Azken plenoan 34 gai izan ziren

Erabaki garrantzitsuak plenoan

Elebitasunaren mozioa ez zen eztabaidatu

Amaia antzokia berritzeko, Santa Barbara parkea urbanizatzeko eta San Kristobalen Udal-Hilerri berria eraikitzeko adjudikazioak egin ziren joan den ostiraleko plenoan. Hiru erabakiak ahobatez onartu ziren, Hirigintza-Batzordeko oneritziarekin iritsi bait ziren plenora.

Amaia antzokia berritzeko, "Construcciones Brues" enpresaren proposamena onartu zen; hau da, 138 milioiko aurrekontuarekin berritze-obra hamar hilabetetan egiteko proposamena. Santa Barbara parkearen urbanizazioa 94 milioitan egingo da, "Construcciones Arrasate" enpresaren eskutik. Azkenik, San Kristobaleko Hilerri berria egiteko enkargua, "Dragados y Construcciones" enpresari eman zaio. Aurkeztutako proiektua betetzeko, 268 milioiko aurrekontua dauka.

Hirigintza-Batzordeak aurkeztutakoaz gain, beste hogeitamarren bat

punturen artean, plenoko gai-zerrendan PSOEk aurkeztutako bi mozio zeuden. Lehen mozioan, Udal-plenoetan bapateko itzultzailea jartzea eskatzen zen. Gaia eztabaidan jarri aurretik, EAJ-PNVk mozioa erretiratzea eskatu zion Alderdi Sozialistari eta honek horrela egin zuen. PSOEk aurkezten zuen bigarren mozioan, Udalari, nolabait esateko, herriko industriren egoera konpontzeko ahaleginak egiteko eskatzen zitzaion. Mozioa, surrealizatzen eta metafisikotzat jo zuten gainontzeko alderdiek baita botaziora jarri ere. Sozialisten bigarren mozio honen inguruan hiru proposamen egin zirenez, hirurak jarri ziren botazioan: a) Mozioa bera, onartua. b) Aurreko mozioa zenbait agintari bidaltzea: onartua izugarriko boto-nahasketarekin. c) HBren eskaria, Madriliko Gobernuari Euskadiko industri sarea ez suntsitzeko exijituz, onartua ere.

Usteak uste

Pasa den ostiraleko Udal-Plenoan alderdi sozialistak, aldi bereko itzulpen sistema dela eta, mozio bat aurkeztu behar zuela irakurri nuenean, euskaltzale izanik, kezka pixkat sortu zitzaidala ezin ukatu.

Horrela bada, ostiralean Pleno-Aretora joaterik izan ez nuenez, saiatu nintzen han gertatutakoaren berri jasotzen. Baiezkoa ala ezezkoa atera ote zen?

Ba ez. Harritu zaitez. Ez zen ez baiezkorik eta ez ezezkorik atera (alderantziz baino, esango nuke nik).

Baina ezer erabaki ez zenez, nire kezka lehengoan jarraitzen du. Egunkarietan irakurri dudanez PNV-EAJk ez zuen polemikan sartu nahi eta une egokiago baterako uztea eskatu omen zien sozialistei, eta hauek mozioa hartu eta gorde egin zuten. Hemendik aurrera badakigu, ez dago gauzak behar den bezala eskatzea baino. Edo, ba ote dago zerbait gehiago?

Baina honekin batera beste galdera batzuk etortzen zaizkit burura: une egokiago baterako uztea esaten denean, zer esan nahi da? Une egokiagoa polemikan sartzeko? Une egokiagoa polemikarik gabe erabakitzeke? Eta polemikarekin edo polemikarik gabe, zer erabakitzeke, aldekoa ala aurkakoa?

Galdera asko, ezta? Baina gertatutakoa ikusirik, ez naiz ausartzen erantzunik ematen. Politikan dena posible denez, ea nor den ausartzen den "guapo".

AMAIA JAUREGI

LEARAN

MARKO-JARTZEAK • LAMINAK • MARGOAK
Biteri Etorbidea, 11 ARRASATE



**SAMEGO
GARBIKETAK**


Urriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

□ Gazte-Zerbitzua

Urriaren eta azaroaren, Udaleko Gazte Zerbitzuak ez du normaltasunez funtzionatu, goizetan itxita egongo baita; arratsaldean, ordea, bakarrik Setatik 7etara izango da zabalik. Ostiraletan, goizean ezezik arratsaldean ere itxita izango da. Abenduan, Gazte-Zerbitzuaren ordutegia ohizkoa izango da.

□ Blanca Roncal Mankomunitatera

Deba Garaiko Mankomunitatea osatuta egon arren, Arrasateko Udaleren aldetik laugarren ordezkariaren izendapena egitea falta zen. Izendapen berri horri buruzko erabakia joan den asteko plenoan hartu zen, EAJ-PNVko botoen laguntzaz, Blanca Roncal sozialista atera zelarik. Izendapen hau dela eta, HB eta EAK EAJ-PNVren jokaera salatu zuten, beren ustez hobe izango litzatekeelako Mankomunitatean Gobernu Batzordekiren bat egotea.



Gorabehera gutxi hizkuntzak ikasteko matrikulaldian

Ahizke: ingelesaren sukarra

Alemanaren eskaerak ere gora egin

Dagoeneko AHIZKE-CIMen bukatu da matrikulaldia eta ondorio batzuk atera daitezke.

Eskola hiru arlotan banatuta dago. Lehenengoa junior taldea, 7tik 14 urtera bitarteko umeekin. Arlo honetan mila pertsona inguru daude, baina ikasle kopurua zertxobait jaitsi egin da, dagoeneko lehenengo mailatik ingelesa sartzan hasi direlako ikastoletan.

Bigarren arloan azterketa ofiziala egin behar duten ikasleak daude, 600 inguru. Arlo honetan ingelesa bakarrik ematen da.

Hirugarren arlo klase orokorrak sartzan dira. Arlo honetan ingelesean 300 daude, frantsesean 40 eta alemanean 70, azken hizkuntza honetan matrikula asko igo delarik.

Arlo hauetaz gain, enpresetako taldeak ere badaude Ahizken. Enpresetan ingelesa, alemana, frantsesa, italianoa eta batzuetan atzerritarrentzako gaztelania irakasten dira.

Garbi ikusten denez ikasle gehienak gazteak eta umeak dira, eta inguruko herrietatik etortzen dira, Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatza hain zuzen ere.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

Juan Manuel Iribecampos & Miren jaione Nuñez, Urriaren 11n. Elizaz.
Julio Garcia & Maria de las Mercedes, Urriaren 11n. Elizaz.

ONGIETORRIA JAIOBERRIEI

Ancifar Ortiz Harri, urriaren 4an.
Balzategi Urritia Ainhoa, urriaren 8an.
Arana Zubia Peru, urriaren 11n.
Perez de Nova Josu, urriaren 11n.

URONDO
elektrizitatea



Nafarroa Etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektra gaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Basabe jatetxea

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Industrialdea
ARETXABALETA


Tfnoak: 79 91 84
77 07 94

VE ECUADOR

Kontzezlño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

FELIPE
MADINA
ZURAK

Zarugalde, 40 Arrasate 79 13 78



Ezintasun fisikoa zutenei, orain ezintasun psikikoa dutenak ere gehituko zaizkie.

Etkez etxeko laguntza zabalagoa

Jende askorentzat doaneko zerbitzua izango da

Gipuzkoako Foru-Aldundiak bultzatuta, duela urte bete etkez etxeko laguntza zerbitzua jarri zen martxan, ezintasun fisikoren bat zutenentzako. Gaur egun, zahar, ume eta gaixoen artean, 51 arrasatear baliatzen dira zerbitzu honetaz. Orain artean, zerbitzuaz baliatzeko ezintasun fisikoak hartzen ziren kontuan, baina joan den ostiralean, ezintasun psikikoak jasaten dituztenei ere zerbitzua zabaltzea onartu zuen Udal-Plenoak. Ondorioz, bakardadean bizi diren gaixo psikikoek ere, hementik aurrera, izan dezakete norbaiten la-

guntza.

Aipatutako laguntzailearen ohizko lanak, besteak beste, higiene-kontutan laguntzea, bazkaria prestatu eta ematea, etxea garbitu edota etxetik ateratzea izango lirake.

Bestalde, aipagarria da, etkez etxeko laguntza hauen izaera soziala kontuan hartuta, zerbitzua ezin dutenei ordaindu edo profesioarteko alokairu minimora iristen ez direnei, ez zaiela ezertxo ere kobratuko. Azkenik, esan behar zerbitzua beteko duen enpresa kontratatzeko deialdi publikoa egin dela.

Paper-bilketa

Askotan egiten duten moduan, larunbat honetan Orkatz skaut taldekoek, diru apurren bat ateratzeko, paper-bilketa egingo dute. Oraingoan, bilketari goizeko hamarretan emango diote hasiera. Lana errazteko, eskertzekoa litzateke papera emateko duenak multzotan prestatzea, edozein modutan dagoena ere hartuko duten arren.

Dirulaguntza hitzarmenari

Euskararen aldeko hitzarmena 1990eko martxoaren 28an sinatu zen Arrasaten. Urte t'erdi pasatu da ordutik, eta dagoeneko 59 entitatek sinatu dute hitzarmena. Abenduan, beste 20 sartuko dira euskara bultzatzeko akordio honetan. Aipatu, bestalde, aurten ere Eusko Jaurlaritzako Euskara-Zerbitzuak milioi t'erdi pezetako dirulaguntza eman go diola Arrasateko Udalari, euskararen aldeko proiektu hau gauzatzen segitzeko.

Kintoen zozketa

Udaletxean prest dago soldaduzkara joateko azaroaren 3an zozketatuko dituzten kintoen behin-behineko zerrenda. Guztira 97 izen agertzen dira bertan. Gehienak 1973. urtean jaiotako mutilak badira ere, egon badaude arrazoi ezberdinengatik prorrogak eskatu dituztenak. Zozketa honetan ez da inor kupoz kanpo geldituko. Gehienek Gasteiz eta Donostia aldera joan beharko dute soldaduzka egitera.




Parques
y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ

Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)






Otalora kaletik Olarte kalera doazen **eskailerak** beti oso zikinak egoten direla jakin dugu. Bertatik jende asko pasatzen da. Beraz, Arrasateko beste kaleak garbitzen diren moduan, hau ere garbitzea komeniko litzateke.





Gaztetxe ondoan dagoen **palmondoari** lur zikina kendu eta berria ipintzeko asmotan harrapatu genituen gazteak, baina une horretan palmondoa ia beti bezain bakarrik gelditu zen, mutil guztiak takarradan hasi bait ziren, gure kamerarekin lotsatuta. Gauzak ondo egin eta halere agertu nahi ez!



Beste askoren moduan, aste honetan **Angel Mari Peña Garikano** izan dugu Arrasate Pressen bisitan, Etor argitaletxearen izenean etorrita. Behar bada horregatik ez zuen bertsorik botako, eta gu entzuteko gogoarekin gelditu ginen.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

beatriz


oinetakoak eta
poltsak

Erdiko Kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala, 11 Tfnoa: 79 20 56

Izen
PROPIOAK



◀ **Garagartzako rugby zelala** sasiz eta belarrez beteta dago. Ondorioz, rugby taldea partidu guztiak etxetik kanpo jokatzen ari da. Iaz ere zelaia egoera txarrean zegoelako, lehenengo buelta osoa kanpoan jokatuz ibili ziren. Hortaz, zelaia konpontzea ez litzateke gaizki egongo.

● **Gotzone Maguna**, 26 urtekoa. Lehen, Udaleko Hirigintza sailean administrari-lanetan aritu zen. Orain herri komunikabidetako ihardunaldiak prestatzen ari da. Ihardunaldi hauek azaroaren 22 eta 23an izango dira.

● Arrasateko Udalak erabaki berri du zeintzuk izango diren bere ordezkariak ikastetxe ezberdinetako eskola-kontseiluetan: **J. C. Garitano** Eskola Politeknikoan, **J. Aresti** San Viatorren, **J. J. Uriarte** San Frantzisko Xabierren, **A. Orobengoa** Almenen eta CIMen, **A. Zumalde** Musakola eta Erguineko Herri-Eskoletan, **I. Gallastegi** Umezaintza eta La Merced-en, eta azkenik, **J. Rodriguez** Institutuan eta San Andreseko Herri-Eskolan.

● **Pako San Miguel** gasteiztarrak Monterronen izandako Nazioarteko Eskultura Érakusketan lan bat izan zuen erakusgai. Ondorioz, Luigi Corasaniniren beka jaso du eta hila-betez Carrara-ra joango da marmolarekin lan egitera.



Epelde

Pedro Etxagibel eta **Maitane Larrañaga**

Aramaioko Gantzaga auzoan ezkondu ziren pasa den maiatzaren 18an. Ezkon-bidaian nora joan diren jakin ez arren, seguruenik primeran pasatuko zuten.

Zorionak! ▶

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIGAIK

Ferrerias, 28-B ARRASATE Tfnoa: 79 08 70



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE

Tfnoa: 79 70 39

ARGI PLASTIC. C. B.

PVC eta aluminiozko leihogintza

Berria Arrasaten! Diseinu berriak!

Axeri, 3 ARRASATE

Tfnoak: 77 02 40 / 77 11 30

BEVERLY
TABERNA

Gipuzkoa Etorb., 9 Tfnoa: 79 16 99
ARRASATE

Memesa

79 42 22



◀ **Jose Mari Ugalde**



"Largito" txistulari famatuak Tellamendi txabolan ospatu zuen bere urtebetetzea. Bere egunean bertan, Arrazolari begira, hamabi kanta jo omen zituen jarraian. Badirudi primeran pasatu zutela, berak eta bere ingurukoek.



Santa Agedako **Aita Menni ospitalean**, gaixoek egindako lanez osatutako erakusketa dago ikusgai. Bertan dauden gauzak udan antolatutako ikastaroetan egindakoak dira. Zeramika, pintura, lorazantza, jantzigintza eta otargintzako lanak ikus daitezke. Erakusketa azarora arte dago zabalik.

Igandean **Lan Kide Aurrezkiak Urkulun** egin behar duen eraikuntzaren aurkako martxa burutu zen. Goizeko hamaiketan Aretxabaletatik irten eta Urkuluraino hirurogei bat pertsona joan ziren. Eraikuntza-lekuan bertan hiru zuhaitz landatu zituzten. Batean, arbolak landatzen eta bestean martxaren argazkia ikus ditzakezue.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

Plus Ultra taberna

Maalako errabala, 17
ARRASATE Tfnoa: 79 20 57

beatriz oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33 ARRASATE



Gol ugari oraingoan

Partidu bat jokatu barik gelditu zen



INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Anboto

Iturriotz, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 20 48

- Errentamenduak
- Salmentak
- Balorazioak, etab.

BRANKA taberna

Zarugalde, 1 ARRASATE Tfnoa: 79 21 13



Zaldibarko Futbito-txapelketa

A taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Zulu's	2	2	0	0	14	6	4
Fosloros	2	2	0	0	10	3	4
Arrasate Krist.	2	2	0	0	10	4	4
Tronkoteak	2	2	0	0	10	6	4
Adobe	2	2	0	0	11	5	4
Aketegi Express	2	1	1	0	24	9	3
G. P. Noski	2	1	1	0	10	4	3
Kriskibalda	2	1	0	1	11	7	2
Los Heredia	2	1	0	1	13	6	2
Uglys	2	1	0	1	6	7	2
Koska's	2	0	1	1	7	10	1
Jubilatus	2	0	1	1	6	14	1
Los Manchac	2	0	0	2	8	12	0
Sum. Ind. Ugarte	1	0	0	2	4	12	0
Tall. San Josepe	1	0	0	1	2	7	0
Neanderthal's	2	0	0	1	1	6	0
B. D. L.	2	0	0	2	1	10	0
Expert	2	0	0	2	6	26	0
Total	34	15	4	15	154	154	34

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
La banda	2	2	0	0	11	1	4
Navarros	2	2	0	0	11	2	4
Los Motz	1	1	0	0	11	1	2
Danok lagun	1	1	0	0	7	1	2
Fasprint	1	1	0	0	8	2	2
Potroak Lorateg.	1	1	0	0	5	2	2
Toxus	1	1	0	0	7	2	2
Ganbelas	1	1	0	0	3	1	2
Gau azkenak	1	1	0	1	4	3	2
Maria del Monte	2	1	0	1	3	7	2
Anbotoste K. T.	2	0	1	1	5	8	1
Bukanak	2	0	1	1	4	14	1
M. K. A.	1	0	0	1	1	4	0
Jo ta akabau	1	0	0	1	2	8	0
Sibilus Rover	1	0	0	1	1	6	0
Txintxes Osorik	2	0	0	2	3	6	0
Oleee!	2	0	0	2	2	8	0
Inter de alim.	2	0	0	2	2	14	0
Total	26	12	2	12	90	90	26

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Adelaida	2	2	0	0	18	1	4
Argi ibili Mapfre	2	2	0	0	11	1	4
New Laso Arregi	2	2	0	0	8	3	4
Diego Antonio	2	2	0	0	11	8	4
Gnu Seg Bilbao	2	1	1	0	3	1	3
Shaktale	2	1	1	0	8	7	3
Bar Kajoi	1	1	0	0	9	3	2
ATB	1	1	0	0	6	4	2
Arrasate Press	2	1	0	1	5	3	2
Txokeros	2	1	0	1	7	6	2
Taber. Monterrey	2	0	2	0	4	4	0
Sokoakoak	2	0	0	2	4	7	0
Whiskeria Linde	2	0	0	2	4	7	0
Aizpun bila	2	0	0	2	7	12	0
Alaves	2	0	0	2	2	13	0
Bayer de Lenitz	2	0	0	2	3	20	0
Aurrera bolie!	1	0	0	1	0	5	0
AEK	1	0	0	1	0	5	0
Total	32	14	4	14	110	110	32

D taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Hirei	2	2	0	0	7	1	4
Bar Artano	2	2	0	0	7	1	4
Notxingan Flo.	2	1	1	0	6	3	3
v. C. Daglas	2	1	0	1	14	2	2
Pepelus	2	1	0	1	7	5	2
Artzankos Udal.	1	1	0	0	4	3	2
Arrasate Kirlol.	1	1	0	0	4	3	2
Bizkorrak	1	1	0	0	1	0	2
Arrasate Com.	2	1	0	1	1	1	2
Ezkinako hontz.	2	1	0	1	5	8	2
Camerun's Trik.	1	0	1	0	2	2	1
Sukumurus Anb.	1	0	1	0	1	1	1
Nagixak	3	0	1	1	2	5	1
Ghana	3	0	0	2	3	5	0
Resakas	3	0	0	2	3	8	0
Kakajauri	1	0	0	1	0	1	0
Balaik	1	0	0	1	0	5	0
Atxanta ke te...	1	0	0	1	0	13	0
Total	28	12	4	12	67	67	28

JMA JMA



Askotan futbitoak badu balet-arekin zer ikusirik. Batek baloiari ostikada ematen diola eta, inguruko guztiek nolabait zerbait adierazten dute. Kasu honetan, baloiaren kolpea ez hartzeko jarrera.

EDERRA

TABERNA

Iturriotz, 12
ARRASATE
Tfnoa: 79 96 25

EMAITZAK

A taldea

Tronkoteak 4	Koxkas 1
Los Heredia 8	Jubilatus 0
GP Noski 4	Espres akaitegia 4
Uglys 6	Expert 1
Neanthertal's 1	Adobe F. C. 6
Tall. San Josepe 2	Kriskibalda 7
Zulu's 7	Sum. Ind. Ugarte. 2
Los Manchas 4	Arrasate Kristaldegia 5
BDL 1	Fosforos 5

B taldea

Los Motz 11	Bukanak 1
Potroak Lorategi 5	Anbotoste K. T. 2
Dgnok Lagun 7	Maria del Monte 1
Gau Azkenak 4	Txintxes Osorik 3
La Banda 4	MKA 1
Inter de Alimañas 2	Totxus 7
Navarros 6	Sibilus Rover 1
Oleel 1	Ganbelas 3
Jo ta Akabau 2	Fasprint 8

C taldea

Diego Antonio 5	Sokoakoak 3
Aizpun Bila 2	New Laso Arregi 6
Monterrey taberna 0	Gnu Seguros Bilbao 0
Shaktale 4	Whiskeria Linde 3
Arrasate Press 0	Txokeros 3
Aurrera Boliel *	ATB *
Bayer de Lenitz 3	Bar Kajoi 9
Adelaida 7	Alaves 1
Argi Ibilii Mapfre 5	AEK 0


* = Jokatu gabeak

D taldea

Nagixak 1	Sukumurus Anboto 1
Pepelus 3	Artzankos Udalaiz 4
Arrasate Kiroak 4	Ghana 3
Bizkorak 1	Arrasate Comercial 0
Balaik 0	Bar Artano 5
Atxanta ke te mereces 0	V. C. Daglas 13
Notxingan Florest 2	Cameruns Trikiti 2
Resakas 2	Ezkiñako hontzak 4
Hirei 1	Kakajauri 0

Eskiña taberna

Olarite, 25
ARRASATE
Tfnoa: 79 0220



EGIDO

Automobilarentzako ordezko piezak

Legarre Pabilioia. ARRASATE Tfnoa: 79 62 11



Txutak

Bakoitza bere tokian

Kontuan hartuta talde batzuek partidu bakarra jokatu dutela, beharbada goizegi izan daiteke horrelakorik esateko, baina badirudi bakoitza bere tokia hartuz doala. Hau da, bi partiduak jokatu eta erraz galdu edo irabazi dituztenek, seguruenek aurrerantzean ere horrela jarraituko dute; beren artean jokatu arte behintzat.

Zentzu horretan, orain arte ikusitakoagatik, soma daiteke zeintzuk diren talde indartsuenak edo ahulenak Zaldibarko Txapelketan. Indartsuenen artean, Zulu's, Fosforos, Arrasate

Kristaldegia, Tronkoteak, Adobe, La Banda, Navarros, Adelaida, Argi Ibili Mapfre, New Laso Arregi, Diego Antonio, Hirei eta Bar Artano. Iaz, lehen postuetan ibili ziren asko, ikus daitekeenez.

Talde ahulenen artean, berriz, Los Manchas, Suministros Industriales Ugarte, BDL, Expert, Txintxes Osorik, Oleee!, Inter de Alimañas, Sokoakoak, Whiskeria Linde, Aizpun Bila, Alaves, Bayer de Lenitz, Ghana eta Resakas izango lirakeke. Izenei begirada bat emanez gero, iaz gaizki ibili ziren askoren aldamenean, finalerdietara iritsi zen Suministros Industriales Ugarterena aipa daiteke, arraroa bait da dagoen tokian egotea. Iazko jendea badu, azkar aterako da zulotik.

BEÑARDO KORTABARRIA

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea

Tronkoteak	Jubilatus
Los Heredia	Koska's
GP Noski	Espres akategia
Ugys	Expert
Neanthertal's	Kriskibaldia
Tall. San Josepe	Adobe F. C.
Zulu's	Fosforos
Los Manchas	B. D. L.
Arrasate Kristaldegia	Sum. Ind. Ugarte

B taldea

Los Motz	Anbotoste K. T.
Potroak Lorategi	Bukanak
Danok Lagun	Txintxes Osorik
Gau Azkenak	Maria de Monte
La Banda	Totbus
Inter de Alimañas	M. K. A.
Navarros	Fasprint
Oleee!	Jo ta akabau
Ganbelas	Sibilus Rover

C taldea

Diego Antonio	New Laso Arregi
Aizpun Bila	Sokoakoak
Monterrey taberna	Whiskeria Linde
Shaktale	Gnu Seguros Bilbao
Arrasate Press	ATB
Aurrera Bolle!	Txokeros
Bayer de Lenitz	AEK
Adelaida	Argi ibili Mapfre
Alaves	Bar Kajoi

D taldea

Nagixak	Artzankos Udalaizt
Pepelus	Sukumurus Anboto
Arrasate Kirolak	Arrasate Com.
Bizkorak	Ghana
Balaika	V. C. Daglas
Abxanta ke te mereces	Bar Artano
Notbingan Florest	Kakajauri
Resakas	Hirei
Ezkiñako hontzak	Camerun's Trikiti

Foruen



Gure berezitasuna: rabak

Foruen Pla., 2 Tfnoa: 79 06 16
ARRASATE

• Arimazuri • dastapenak

ZABALIK GOIZEKO SETATIK

Arimazuri plaza / Loramendi, 6
ARRASATE Tfnoa: 79 80 44



Osorik pub

Ignazio Zuloaga kalea. Arrasate

KAJOI TABERNA

ERDIKO KALE, 22
ARRASATE
TFNOA 79 32 27

Marcos Roitmanek, gaur egun Madrileko Complutensean Latinamerikako gizartearen egiturari buruzko eskolak ematen ditu. Txileko Santiagon jaio zen. Mexiko, La Habana, Buenos Aires eta beste hainbat tokitan irakasle izan da. *"Latinamerika V. mendeurrenaren aurrean"* izeneko liburua argitaratu berri du. Asteartean, Monterronen, Komite Internazionalistek antolatutako hitzaldi batean mintzatu zen.

— Nola ikusten da Latinamerikan bostgarren mendeurrenaren gaia?

— Esango nuke V. mendeurrenarena Estatu Espainolaren proiektua dela. Horren helburua, kultur nortasun zehatz bat finkatzea da; hau da, kolonialismoaren ondorioz, 1492. urtearen ondoren, sortzen den nortasuna finkatzea. Horrela begiratu-ta, V. mendeurrenaren zentzua balizko kulturaren elkartasuna ospatu eta Estatu bakarraren kontzeptua zabaltzea izan daiteke.

— Beraz, ospakizunek eta gainerakoek ez dute zerikusirik Latinamerikarekin?


— V. mendeurreneko ospakizunak Estatu Espainolari dagozkio, Latinamerika harrizko gonbidatu bat besterik ez da. Horregatik V. mendeurrenarekin zerikusia duten gauzak ez dira Latinamerikara begira planteiatzen, Estatu Espainolaren barruan planteiatzen dira. Ekintzen aurrekontuei begiratzea nahikoa da horretaz ohartzeko, %80a hemen gastatzen bait da.

— Zer zentzu dauka bada V. mendeurrenak Latinamerikan?

— Latinamerikan ez da

Marcos Roitman

V. Mendeurrenaz hizketan



ospakizun, topaketa edo horrelakorik planteiatzen. Historikoki begiratu gero, V. mendeurrena inbasio bat izan zen kolonialista espainiarren aldetik. Garai hartan Latinamerikan zeuden kultura handiek eta etnia txikiek ez dute zer ospatu. Inbasioak kultura, bizitzeko era eta mundua ikusteko modu bereziak suntsitu zituen. Ora-indik ere, kultura eta etnia horiek suntsituak izaten ari dira, gainera suntsitzaileak oligarkia berbeak dira. Alde horretatik, Latinamerikako etnien borroka bertako oli-

garen aurkakoa da. Borroka ez da V. mendeurreneko ospakizunen aurkako beste ospakizun batzuk antolatzea, baizik eta argi uztea bertako etniak zapalduta bizi direla. Latinamerikako egungo klase agintarien zapalkuntza eta bere garaian Espainiar kolonialismoak ezarritakoa parekoak dira.

Latinamerikaren arazoa ez da atzera begiratu eta hamar edo hogeit mila pertsona erail ote zituzten eztabaidatzea. V. mendeurrena antolatu dutenek eztabaida horretara mugatu nahi dute,

hau da, ikuspegi historikora, nolabait oraingo errealitatea alde batera utzita. Latinamerikarren nahia, kultur nortasuna berreskuratzea da, baina ez ikuspegi historikoa oinarrituta, 1992. urtean herriak bizi duen zapalkuntza-maila munduari erakutsiz baizik.

— Eta hori nola gauzatzen da?

— Herri-askapeneko mugimendu eta autodeterminazio-sentimenduarekin lotzen da. Une horretan agertzen da errepresioa, Guatemala, Brasil, Bolibia... eta hainbat tokitan eraildakoak lekuko. Okzidenteko kulturaren islada penabesterik ez da.

— Madrilen bizi zara, baina sarritan joaten zara Latinamerikara?

— Latinamerikako herrien subiranotasunaren aldeko intelektualen mugimenduan sartuta nago, ondorioz militante moduan ahal dudanean beti joaten naiz harantz. Jakina, eskolak ezin ditut utzi nahi dudak bakoitzean.

— Hango jendeak badu beren alde hemen egiten diren gauzen berri? Esaterako Komite Internazionalistak edota Askapenak egiten dituzten kanpainen berri?

— Bereiztu egin behar dira mailak. V. mendeurrenaren aurkako ekintzak hemen egin behar dira, ospakizunak ere hemen antolatu direlako. Lehen esan dudak bezala, V. mendeurrenak ez du inolako garrantzirik bertakoentzat, Latinamerikako arazoa lehen aipatu dudana da: bizi den zapalkuntzamailearen berri ematea. Arazoa historikoki planteiatu behar da, baina etorkizunari begira herri edo nazioen autodeterminazio proiektuak bideratu behar dira.

— **“Mendeurreneko aurrekontuen %80a Espainian gastatzen da”**

Merkadiloa: ostiraleroko azokatxoa

Itsasuntziak salgaiz beteta, bizanziarrak Mediterraneoan barrena ibili ohi ziren negozioa egiten. Gaur egungo merkatariek, itsasuntzien ordeztu, furgoneta edo kamioiak dituzte eta Mediterraneoan ibili beharrean, herriz herri mugitzen dira errepideetan.

Denetarik, denetarik!

Oinetakoak alde batean, sukaldarako tresneria bestean; honantzago aterkin saltzailearen postua, ondoan aldagarria salgai dituenarena; atzerago, berriz, umeentzat jostailuak salgai, prakak eta jertseak saltzen dituenaren aldamenean. Aterpean, kamisoiak eta lotarako pijamak erosteko aukera. Bata bestearen ondoan, Afrikatik etorri eta benetakoak bailiran perla zuri faltsuak saltzen dituen beltza eta jendea bere ingurura etor dadin etengabe kanpaitxoa astintzen duen amona ijitoa.

Jendea harantz eta honantz salmentetako postuei begira, batzuk presaka, beste batzuk ordea, lasai; intimitaterik ezean, elkarrizketa eta tratu gehienak altu eta ozen. Merkatariek, beherapen izugarrien berri ematen: "bi toaila mila pezetatan", "guztia 1.900 pezetatan"... en-

tzuten dute erostekotan joan direnek eta bakarrik buelta bat egitearren ingururatuak, tentazioan erortzeko zorian azken hauek ere. Deskribatutakoa, bi ostiraletan jarraian San Andreseko Plazan eta beste bietan Alfontso

Xgarrena Jakintsuaren Plazan ikus daiteke.

Lanaldiari hasiera emateko, ostiraleroko azokara etortzen direnak goizean goiz jaikitzen dira. Oraindik bekarrak kendu ezinik eta ohearen berotasun gozoa



Tratu gehienak ozenki egiten dira

gogoratuz daudenean, kamioi edo furgonetak kargatu behar izaten dituzte. Ibilgailuaren bolanteari eutsi eta bidean eguna nola argitzen den ikustea eguneroko gauza da merkataria hautentzat. Izan ere, Arrasate eta inguruko herrietara etortzeko ohitura duten asko eta asko urrutiko samarrekoak dira: Bilbo, Miranda de Ebro, Irun, etab. etakoak. Gertukoak ere badira, noski, Zumarraga eta Elorriokoak esaterako.

Bakoitzak berea

Behin lantokira iritsi eta gero, gauaren azken iluntasunean kargatutako kamioia deskargatu behar da. Apain-apain jarri guztia eta bezeroen zain gelditu, ea gaur erosteko gogoz datozen!

Antonio Sanchez bilbotarrak urte piloa daramatza Arrasatera etortzen; lapikoak, zartaginak, antosinak... eta sukaldean behar izaten diren beste hainbat gauza saltzen ditu. "Lehen herri honetan oso ondo saltzen zen -dio Antoniok- baina orain ez. Hori gutxi bali-

tz, aurten Udalak alokatze-tasetan %70eko igoera egin nahi zuen. Mugitu ginen eta bakarrik %30a igo digute, orain metroko 900 pezeta ordaintzen ditugu. Txarrena, jendea ibili badabilela, baina erosi beharrean begiratzeko bakarrik”.

Antoniok zioen moduan begiratzera joaten denik aurkitu dugu, Edurne Saratxaga astero azokara joaten den horietakoa da. “Normalean ez naiz erostera etortzen, buelta bat ematera bakarrik. Jeneroa dendetan baino merkeago dago, baina probalekurik ere ez dagoenez, nahiago dut dendetan erostea”. Saltzaileentzat zorionez, bada bestelakorik ere, Milagros Sanchez esaterako, “Ia beti azokan erosten dut, kalitate bera askoz ere merkeago aurki daitekeelako”.

Pijama, kamisoi eta aldagarriak saltzen dituen arren, Isabel Iñarra eibartarrak, Edurne Saratxagak zioen moduan, ez du probalekurik bere postuan. Arrasatera etortzen direnen artean, beteranoetakoa izango da Isabel, gerraz geroztik herriz herri baitabil. “Gurasoekin hasi nintzen, hil zirenean neuk negozioa hartu, eta orain alaba dabil nirekin. Bergara, Eibar, Elgoibar eta Azpeitiara joaten gara beste lau egunetan. Hemen egun osoko irabazia bi ordutan egiten da, ez dendetan bezala, baina gogorragoa da. Okerrena da oso gutxi laguntzen diogula elkarri,



Denetarik ikus daiteke ostiraleko merkadiloan agian konpetentziagatik. Ez ibiliko bait gineteke elkartuta egonez gero”. Isabel Iñarrak merkata-

riaren lana oso gogortzat duen moduan, Mertxe Peñalber elorriar gazteak bestelakoa uste du. “Hasieran lan txarra da, beti inbertsioak egiten eta diru barik. Hozta, beroa eta horrelako gauzak aipatzen ditu hemen jendeak, baina nik denda baino nahiago dut azoka. Bataz beste, postuaren aurretik 2.000 pertsona pasatuko dira egunero, erosle potentzialak guztiak, dendetan ezinezkoa dena. Klinikalaguntzailea naiz, baina nahiago dut azokan egon, gehiago irabazten da eta. Saltzaile gehienak kexatzen dira, baina inork ez du alde egiten”.

Salgaiak bezala, eritziak ere ugari eta desberdinak ostiraleroko azokatxoan. Bakoitzak bere ofertak.

“Gu ere ibiliak gara merkatutxoetan”

Bere garaian merkadiloetan lan egitea pentsatu bagenuen —diote Mertxek eta Iñakik—, langabezia geundelako izan zen eta herriz herriko salmenta inbertsio handia behar ez zuen negozio bideragarria zela uste genuelako. Denbora gutxira konturatu ginen oker geundela.

Oztopo asko sortu ziren: lehenengoa, inguruko merkatuetan toki finkoa lortu beharra; hau oso zaila zen denak beteta zeudelako eta zain zeuden zerrendarekin funtzionatzen zutelako. Honek gure egoera legalizatzea suposatzen zuen (autonomoak, BEZa, hazienda-aitorpena...) Horretaz gain furgoneta eta aurretik pentsatu babeko akzesorioak erosi behar izan genituen.

Behin martxan jarri ginenean merkatu ezberdinetan eta inguruko jaietan hiru urtetan aritu ginen lanean.

Lanpostu bat eskaini zigutenean ez genuen zalantzarik izan hura uzteko, ordurako konturatuta bait geunden ekonomikoki ez zuela pena merezi.

Dena dela, urteak pasatu ondoren ez gineteke kalera bueltatuko lana egitera”.

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE


7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 89 89

Arrasatearren emaitzak Donostiako Maratoian

Arrasatear eta aretxabaltarrek denetik egin zuten Donostiako maratoian. Batzuk, lesioak medio, atera ere ez ziren egin, Cesar Diez, Juan Pablo Balerdi eta Alfonso Luelmo esaterako. Gehienek 42 kilometroak egitea lortu bazuten ere, erretiratutako bakarra Ramon Jausoro izan zen. Probari hasiera eman aurretik, aretxabalarra faboritoen artean zegoen, baina erritmo gogorregia hartu zuen eta azkenean erretiratu egin zen. Parte hartu zutenen denborak, batzuenak gutxi gorabeherakoak, hauetxek izan ziren:

- Pedro Zalama2-32-34
- Jose R. Belastegi ...2-42-06
- Bittor Amasorrain...2-53-50
- Josu Ugarte2-54-49
- Luis Mari Ugarte2-55-18
- J. Jose Ansoategi...2-57-59
- Conrado Paul2-59-00
- Martin Nafarrate2-59-25
- Jose Luis Arroiabe.3-00-24
- Joseba Ugalde3-04-00
- Daniel Zubillaga.....3-07-00
- Jesus Lonbide3-08-00
- Uribesalgo3-10-00
- Jose Errasti3-30-00
- Crispin Baldezate ..3-34-00
- Jose M. Larrañaga 3-40-00
- Marrodan4-00-00
- Eukeni Olabarrieta.4-10-00



Aurten ere ume ugari ibiliko da kirola egiten

Kirol-proiektua aurrera

laz 1.225 umek parte hartu zuten

Joan den urtean, Udalak OHoko ikastetxe, Guraso Elkarte, eta Kirol Elkartekin batera kirol-proiektua antolatu zuen. Proiektuaz, heziketa fisikoa umearen bizitzaren parte bat izatea lortu nahi zen, hezkuntza integrala lortzeko bide egokia zelakoan. Iaz, 1.225 haurrek hartu zuten parte. Ikastetxe bakoitzeko ikasle-kopuru osoak kontuan izanda, ehuneko honenbestek hartu zuten parte: San Frantzisko Xabierretik %50ak, San Viatorretik %50ak, La Asuncionetik %45ak, La Mercedetik %82ak eta Erguinetik %30ak.

Aurten proiektua errépikatu egingo da eta beste ikastetxeekin batera, ikastetxe publikoen partaidetza ere espero da. 91/92 ikasturteko aktibitate fisikoa honela prestatu da: lehen eta biga-

rren mailetan, psikomotritate, haurrak garapenerako oinarrizko trebetasunak bereganatzeko helburuaz. Hirugarren eta laugarren mailetan aurrekirola, hau da, aurrerantzean kirol ezberdinak menperatzeko joko zuzen-

Eskola publikoen partaidetza ere espero da

duak praktikatzea. Bostgarren eta seigarren mailetan multikirola egingo dute, kirol ezberdinetan oinarrizko teknikak landuz. Zazpigarren eta zortzigarren mailetako haurtzat espezialitateak prestatu dira, aukeratutako kiroletan sakontzeko.

Proiektua asteen bi ordutako saiotan burutuko da.

Hurrengo partidua

Tolosa taldea dator Atxabalpera asteburu honetan, kategoriako liderra. Liderrari aurre egiteko, Jesus Izagirrek ez du taldea berak nahiko lukéen bezala: Inaxiok aspaldi esan zion agur denboraldiari, Txosa belarritik operatuta, Urretxuri baloikada batek sudurra hautsi zion joan den asteko partiduan, Patxi La Fuente oraindik lesionatuta dago, Julian gaixorik aurkitzen da, eta Aranburuzabalak be-launeko minekin ia ez du parte hartu asteko entrenamenduetan, errekuuperatzeko esperantza duen arren.

Argi dago tolosarren bisita ez dela unerik egokienean iristen Arrasatera. Dena dela, Mondrako entrenatzaileak, partidua zailtasuna ahaztu barik, ez zuen amore emateko asmorik. Behar bada, duena nola duen ikusita, Izagirrek garaipenaren aldeko aposturik ez luke egingo, baina "ziur izan -zioen- garaipenaren bila aterako gara-la".

Tolosa oso talde gaztea da, aspalditik elkarrekin jokatzen ari den jendez osatua. Aurtengo ligan ez du partidurik galdu eta gainera, hasiera honetan behintzat, gogor baino gogorrago dagoela erakutsi du.



Berango



Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

**PEDRO
ZALAMA**

Maratoi-gizona

Zazpi urtetan korrikan dabilen maratoi-gizon hau, aurtengo Donostiako maratoian 36garrena eta Arrasateko lehenengoa izan da.


Bere markarik onena larogeitazazpian egin zuen 2.24'koa. Maratoian ondo egoteko asko entrenatu behar dela dio. *"Ondo ibiltzeko astean 130 ordu inguru sartu behar dira. Hala eta guztiz ere gutxi dira, elitezko korrikalariak astean 240 ordu sartzen bait dituzte"*.

Autodidakta dela esan daiteke. *"Izan ere berandu hasi nintzen eta estiloa hartzen eta beste hanbait alderdi lantzen hasiz gero, hamar urte pasatuko nituzke. Beraz, neure kasa jarraitu dut entrenatzaile barik"*.

Aurten haizea aurka izan zuten korrikalariak. Pedrok ere nabari izan zuen. *"Gehienetan Donostiako maratoian eguraldi ona egin izan du, baina iaz bero gehiegi zegoen eta aurten, berriz, haizea gogorregiazten. Maratoia korritzeko eguraldirik onena haizerik gabe eta 14 gradu-rekin izango litzateke"*.

Ordu asko sartu behar dira ondo egoteko, baina badirudi korrikalarietan dabilen lekuetan ez dietela laguntza gehiegirik ematen. *"Ez, egia da, orduak libratzeko ez dugu balere laguntzarik. Elitezko korrikalariak*

PODIUMA



ere ez dute laguntzarik".

Pedrok aurten Espainiako txapelketan parte hartuko du Mondrak patrozinatzen badu. *"Orain arte korritu izan ditudan Espainiako txapelketa guztiak Mondrak patrozinatu dizkit. Aurten ere laguntza ematen badidate joango naiz. Bestela, oso garesti irteten da lauzpabost egun etxetik kanpora eta norbere kontura pasatu behar direlako. Honetaz gain Estatutik kanpo antolatzen diren beste maratoietan ez dut parterik hartzen lehen aipatutako arrazoiengatik, hau da, norberaren polisikotik ordaindu behar delako bidala eta egonaldi guztia, gainera estatuan antolatzen diren maratoiak nahiko onak dira eta ez dago kanpora joan beharrik"*.

Maratoi guztietatik gustoren ibiliena lehenengoa izan zen. *"Bai, hura izan zen poluena, bukatzerara joan nintzelako eta ez denbora ona egitera"*.

◆ **Pilotan emaitza onak**

Pilotariak, partidu batean ezik, emaitza onak lortu zituzten joan den asteburuan. Larunbatean, Eskoriatzaren aurka, alebinak 18-12 nagusitu ziren, infantilak 18-8 eta kadeteak 18-9. Igandean berriz, neurketa Aretxabale-taren aurka izan zen, jubeniletan garai-pena aretxabaletarrentzat 22-19, juniorretan arrasatearrak garaile 22-6, eta nagusietan 22-10 irabazi zuten arrasatearrek. Datorren asteburuan, arrasatearrek Soraluze eta Bergarako pilotarien aurka jokatuko dute.

◆ **Igerilekua oraindik itxita**

Joan den asteko alean, berrikuntza-lanak bukatuta zirela eta Musakolako barruko piszinak astelehenean zabalduko zituztela adierazi genuen. Norbait piszinara igeri egitera joan bada, konturako zen piszina itxita dagoela oraindik. Berriz ere, kiroldegian galdetu dugu eta oraingoan ziurtatu digute, zerbait arraroa ez bada gertatzen behintzat, astelehenean, hilak 21, zabalik izango direla. Ea bada egia den!

◆ **Emakumezkoak bikain**

Oso ondo dabilta Mondrako neskek. Joan den astean, Urretxuko taldearen aurkako partiduan 6 eta 1 nagusitu ziren. Sei gol horietatik bat Ainhoak sartu zuen eta gainerako bostak Anak. Ez da ez txantxetan hartzekoa neska honena. Igandean, bailarako derbia, Aretxabaletan eguerdiko 12.30etan.

◆ **Saskibaloian gizonetzkoak hobeto**

Gizonetzkoen Centraljet taldeak, ez zuen inolako eragozpenik izan joan den asteko partiduan bi puntu gehiago eskuratzeko. Neskek, ordea, izugarrizko jipoia hartu zuten ligaren hasieran eta Basaurin 60-36 galdu zuten. Aste honetan Musakolan jokatuko dute.

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**


Urbarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99

Musikontsumoaz

Ez noa oraingoan —zuk, irakurle azti horrek pentsa dezakezunaren kontra— musikaren industria diruzale kupidagabeak ezartzen dizigun morrontza mixera-bleen mingotsa sinesgarritasunik gabeko malkotan urtzera. Ez. Azken finean, industria horren deiei erantzunez disko bat erostean edota kontzertu baterako sarrera hartzean egiten dugun musikontsumoa neurri batean konstzientea da, badugu horrelakoetan askatasun izpi bat diskoa edota sarrera ez erosteko, askatasun hori erabiltzen ez badugu ere. Kontsumitzea erabaki eta gero, be-

jondeiola bakoitzari!

Ez. Oraingoan kezkatzen nauena musikontsumo inkontzientea da, norberak erabaki gabe egiten dena. Pentsa ezazu. Goizean jaiki eta kafesnea berotzen ari den bitartean irratia pizten duzunean ohizko politikoei buruzko ohizko txapa tokatzen bazaizu parean, berehala joko duzu Euskadi Gaztea edo antzeko irratifor- mula batera, bertan gutxiago hitzegiten dutelako. Eta asko konturatu gabe txapa subli- minala jasoko duzu, mundu zibilizatu osoa uniformatzen duen musika berrogeiprintzipaleroa entzungo bait duzu jarraian etengabe. Lantegian eta jefea "Hari musikal"eko




laugarren kanalaren oso zalea delako nostalgja kutrea eta kantzio espaiñola irentsi beharko dituzu jarraian etengabe. Bolumen baxuan, hori bai, zaratakez dezan lana trabatu. Eta deskuido santuan eguna horrela pasa ondoren lagunekin kopa bat hartzeko tenplea jartzen bazaizu, orduan osatuko duzu musikontsumo inkontzientearen

ziklo guztia, zoazen taberna, disko-bar edo diskotekan derrigorrez entzun beharko bait duzu —eta oraingoan bolumenik altuenean— mundu zibilizatuko taberna, disko-bar eta diskoteka guztietan entzuten dena, bum-bum gogor amaiezina eta bereiztu ezin duzun doinu antzeko zerbait.

Baina kontuz. Azken ikerketen arabera, musikontsumoaren aurrean debora luzez pasibo geratzen direnengan menpekotasuna sortzen da, ondoren ezin izaten dute inguruan isiltasunik jasan eta denbora asko baino lehen suizidatu egiten dira.

MIKEL IRIZAR



SASIAIN sport

Errepide eta
mendiko bizikletak

**AUKERA
HANDIA**

Deba Garaiko
bizikleta-denda



Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63
ARETXABAleta


Batuta

Andoni Iñarra

Luthier hitza entzuten edo irakurtzen dugunean, zerbait etortzekotan Argentinako talde famatua datorkigu burura. Ez du jende askok jakingo, Luthier-a arkuzko musika-tresnak egin eta konpontzen duena dela.

Andoni Iñarrak lau urte egin zituen Italian, Cremonan hain zuzen, Luthiergintza ikasten, bibolin, biola, txelo eta kontrabajuaren gorabeherak ezagutzen. *"Orain bada Bilbon hori irakasten duten toki bat, baina orduan ez zegoen eta Italiara joan behar izan nuen"*. Agian, arraro samarra gerta dakiguke mutil bat bapatean Italiara horrelako gauza ezezagun bat ikastera joaten dela ikustea, baina Andonik garbi zuen musikaren inguruko lanbide bat nahi zuela. *"Arrasate Musika-len zazpi urtez pianoa ikasi nuen. Musikazale amorratua izan naiz beti, beraz ofizio honen berri izan nuenean, Cremonarako bidea hartu nuen"*. Hala ere, ordutik pianoa ahaztu samarra du. *"Italian bat alokatu eta noizbehinka jotzen nuen, baina dena batera izan denez, utzi beharrean aurkitu nintzen"*.

Italiatik bueltan, negozio bat jarri dute Bilbon berak eta beste lau Luthie-



rrek. *"Gure musika-tresnak kontserbatorioetan eta jende partikularrari saldu nahi dizkiogu"*.

Bibolin bat egiteko 180 ordu inguru behar dituzte eta bere salneurria berrehun-hirurehun mila PTAtatik hasi eta milioi bat ingurura artekoa da. Serieko bibolinak hamar-hogei-tabost mila PTAtakoak direla badaki, baina merkatu desberdina dutenez, ez dute kompetentzia horren beldurrik.

Luthiera izateko ez omen da derrigorrezkoa belarri ona izatea. *"Derrigorrezkoa ez, baina afinatzeko orduan laguntzen du"*. Musika klasikoa izugarri gustatzen zaio. *"Batez ere, Beethoven. Gaur egungo musika ez dut, ordea, hainbeste atsegin"*.

Luthier bati derrigorrez egin behar zaio honako galdera hau: *"Stradivariusak, zer? Stradivariusak zailtzarik gabe oso onak dira, onenak. Nik behin entzun nuen eta ikaragarri gustatu zitzaidan. Hala ere, gehiegi mitifikatu direla uste dut"*.

Txio txioak

Goikobalu Hondarribiara

Larunbatetik igandera bitartean, 19-20, Goikobalu Abesbatzakoek egonaldia Hondarribian egingo dute. Egonaldiaren helburua, Gabonetako kontzertua prestatzen hastea litzateke.

Orain artean, Goikobaluk Barrian egin ditu hiru hilabeteroko egonaldi hauek. Kantu-teknika hobetu, gortutz-espresioa landu, solfeoa landu eta antzerako gauzak eginez joango zaie Hondarribiako egonaldia Goikobalukoei.



Akordeoi-jaialdia

Datorren abenduaren 6, 7 eta 8an Gipuzkoako Akordeoien laugarren jaialdia egingo da Arrasaten. Udalak jaialdi honetarako 372.750 pezetako dirulaguntza ematea onartu zuen, gehi aretoaren alokairua, orduan, seguruenik, Amaia antzokiko obrak hasita izango dira eta.




"Stradivariusak oso onak dira, baina gehiegi mitifikatu dira"

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin, 5 ARRASATE Tfnoa: 79 25 77

Erdiko kale. 79 19 37



Ferreries. 79 87 62

Jazten 4-ean, gazteak eta euskara

Ez da faltako, *Jazten* zer den jakingo -edo gogoratuko- ez duenik. Aipatu beste egin dezagun, beraz, AEDren baitatik kaleratzen den aldizkaria dela, euskararen gertaera sozialez erreflexionatzeko orain artean daukaguna baino material ulerterrezagoa eta modu atseginagoan plazaratzen saiatzen dena.

Lehen zenbakian *Un futuro para nuestro pasado* liburuen aurkezpena egiten zen euskaraz (*Txepetx*-en liburu honen birrargitarapena aste honetan egin da, bide-nabar); bigarrena irakaskuntza-hizkuntza-gizartea izan zuten izenburu; eta hiruga-

rrena, AEDri buruz eta Arrasaten euskararen normalizaziozko bidean egiten denaz aritu zen. Hor daude eskuragai.

Aste honetan argia ikusiko duen alean, giro urbanoko gazteek geurea bezalako inguru soziolinguistikoa euskararekin dauzkaten harremanez sakondu gura da apur bat. Honetarako, Jon Sarasuaren artikulu mamitsuaz hasi, Xabier Letonak Fermin Muguruzari egindako elkarrizketa biziaz jarraitu, eta Marije Lezeta eta Elena San Martinen lan luzeagoekin osatzen dira zenbaki honen 72 orriak.

Umetatik modu kontzientean euskararen garapena bere barrenean bizi izan

duenaren adibide da Jon bertsolaria; Fermin kantaria, berriz, hogeitaka urte izan artean euskararekin bizi izandako harreman patologikoaz nazkatutik, behar den moduan euskaldundu bere burua eta eragin nahi duena euskaldun autoestima zabalitzen. Biak osagarriak, gaurko gazte euskaldunen eredu imitagarri.

Beste bi lanetan, Eibar, Bergara eta Arrasateko gazte euskaldun zein erdeldunekin egindako eztabaida-taldeetan esandakoen transkripzioak eta artikulugileen interpretazioak irakurri ahal dira. Zitak bertan direnez, norberak ere egin ditzake bereak.

Mezuaren muinera joz

gero, bat nagusitzen da: gazteei beste gazte batzuk erakutsi eta irakatsi behar diete euskaraduna izatea ez dela zaharren kontua bakarrik, gazteena baino; bertakoagoa dela eta hobeto ikusita dagoela euskaraz ibili gura izaten duena erderara noiz salto egingo dabilena baino; transzendetxoago jarrita, euskaraz bizitzen ahaleginduz pertsonago garaile 92aren atarian eta XX. mende-bukaera honetan —munduko beste nazio linguistiko asko bezala— Arrasaten eta Euskal Herrian. Eta alla kuida us!

Argazki dotore eta guzti, 300 pezetatan daukazu zain herriko liburudendetan.

ATALATAIKOAN

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Jaun-andreok, gailurrean... Iñurrategitarrak!!

Gazteago nintzela, herri batetik besterako distantziak handiagoak iruditzen zitzaizkidan, eta inoiz ez zitzaidakeen bururatuko Euskal Herritik 5 espedizio aterako zirenik Himalayarantz urte berean.

Baina halaxe izan da aurtengoan eta Himalaya aldera inoiz baino gehiago begiratzeara tokatu zaigu euskaldunoi. Hainbeste begiratzearan puruz, sarri amets egin dut bazkaltzen edo ohera sartzen edo lanetik irteten ari nintzela, une hartan bertantxe Koxka arrasatearra bere bota handi eta guzti Sisha Pagmaren gailurra zapaltzen ari zela, edo Everesten azpeitiarrak hamaretakoa egiten eta Iñurrategi-

tarrak Makalu puntan argazkia ateratzen ari zirela gero Arrasate Presseko txoko honetan argitaratzeko...

Amets asko eta ilusio ugari euskal espedizioekin, baina zoritxarrez, gailurrak urri. Bost txango t'erdi antolatu dira aurtengoan Euskal Herritik Himalayara:

1- Abrego, Casimiro eta Oiarzabal Kathejungara joan dira, baina gailurrera iritsi gabe.

2- Azpeitiarrak Everestera: hauek ere ez dira tontorrera iritsi.

3- Azpeitia-Arrasate-Eskoriatzakoak Shisha Pangmara: hauek ere ez dute gailurrrik lortu.

4- Donostiarrak Lotse-Pumorira: Pumorira iritsi ziren, baina Lotsera ez.

5- Manu Badiola eta Carles Valles Makalura: lortu zuten iristea, baina ezbehar batek Manu hil zuen.

6- Aretxabaletakoak Makalura, eta lortu dute gailurrera iristea! Baita onik itzultzea ere.

Aurretik azaldutako "txangoen" artean ez da egon inongo galtzerik edo frustraziorik, Manu Badiolaren ezbeharra ezik, eta aurtengoari buruz hainbat burutazio egingo nituzke:

- Aurtengoan inoiz baino txango edo espedizio gehiago irten da Euskal Herritik; badiurudi Himalaya ez dagoela hain urruti eta hemendik aurrera ugariak izango direla antolatuko diren taldeak.

- Nahiz eta gailurrera iritsi

ez, txalogarria da jende honek egin duen ahalegina, harrigarria bait da antolaketa-mailan izaten den lana.

- Harrigarria da Iñurrategi anaiek lortu dutena, urte bitan erreskadan gailur bi zapaldu dituztelako, oraindik ere mende-laurdena betegabe dutelarik NANean. Etorkizun handia dute mendi-mailan eta akaso ezusteko bat baino gehiago emango digu Aretxabaletako anai bikote ausart honen.

- Ez da ahaztu behar, azkenik, Alexander Zubia, *Koxka*, Himalayan egon den lehen arrasatearra dela, eta horrek kopa bat txanpanekin topa egitea merezi du. Osasuna!, *Koxka*, eta ez etsi gailur bat lortu arte.

HANKAMOTZ

PUBLIKO ORORENTZAT

TXOTXONGILO eta

ITZALen ikuskizuna

Nessun Dorma

talde kataluniarrak aurkeztuta:

“Con Quijote

hemos topado”

- Urriaren 27an, igandea
- Arratsaldeko 7etan.
- Amaia antzokian




con
QUIJOTE
HEMOS
TOPADO

Gazteen problematika gaur egungo gizartean

Gai hau tratatzean, ezin dugu ahaztu hain zaharrak ez direnak eta guk gazteok ere, gure bizimodua nolabait finkatu dugunean, txanda-pasa egiten dugula; nolabait gazteak izan ginela (batzuk) eta garela (beste batzuk) ahaztu egiten bait dugu.

Ziur nago gaur egun gazteok dugun arazo nagusienetarikoa bat *lanaren arazoa* dela. Gaur egun lana aurkitzea nahiko zaila da eta aurkituz gero, gehienetan hilabete bakar batzuetarako lana izaten da, lan finkoa aurkitzea ia utopikoa da.

Denborapasaren arazoa ere hor dago. Arrasate nahiko handia izanik ez du (gure ustez) arazo honentzako nahiko irtenbiderik. Argi dagoena hau da, oraindik gazte asko ikusten dela tabernetan eta ziur gaude besterik ez dago-elako hartzen dugula askok irtenbide hori, zinema-mailan ere gehiegirik ez



bait dugu eta dagoena garestiegia da. Badira ere lokal bat eskatzen duten gazteak, baina noizentzat? Arrasateko gazteen artean talde desberdin asko gaude eta denok izan beharko genuke tokia "gazte-leku" horretan, politika alde batera utziz, zeren ez bait gara denok ikuspuntu berdinekoak.


Honetaz gain, bada beste arazo garrantzitsu bat: *soldaduzkarena*, alegia. Euskaldun gazteoi ez digu inongo graziaz egiten urtebete alferrik galtzeak

atzerriko armadari gustoa emateko, eta hor gabiltza geure desadostasuna adierazteko, batzuk objektore eta beste batzuk intsumiso.

Etxebizitzekin ere nahiko arazo dugu. Ez zaigu erraztasun gehiegirik ematen etxebizitza baten beharrean gaudenean, ez elkartu, ez ezkondu, ezta etxetik kanpo ikastera joaten garenean ere. Oso gutxitan aurkitzen dugu geure posibilitateetara moldatzen den etxebizitzarik, denok ez bait ditugu

errekurtsu berdinak.

Bestalde, *ikasleek* ere ez dute bide erraza, lehen aipatu dugun bezala etxebizitzatik hasiz, beken asuntotik eta atzerrira ikastera joateko erraztasun-faltatik pasatuz, gerora, esperientzi falta dela eta, lan bat aurkitzeko zailtasunarekin bukatuz.



Pello Urizar eta
Jasone Giraldo
(Eako gazteak)

ASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55

ETXEBIZITZAK

- **Bergarako bi neska pisua osatu nahi dute** Irunean. Tfnoa: 76 11 11.
- **Ikasle pisua aurkitu nahi nuke** Donostian. Tfnoa: 79 99 82 (Goizez). Miren.
- **Bi ikasle pisu bila dabilta** Donostian. Dei egin 79 53 82 tfnoa.ra bazkalordu edo afalorduetan.
- **Erguinen etxebizitza salgai.** Amueblatua, gas naturala, 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua, bista ederrekoa. Garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- **Bi ikasle behar dira** Donostian pisua osatzeko. Dei egin 79 55 23 (Santi) edo 74 13 07 (Jon).
- **Etxebizitza alokatuko nuke** Aretxabaletan ala Eskoriatzan. Tfnoa: 79 59 60. Josu.
- **Zarugaide 3an garaje-plaza alokatzen da.** Tfnoa: 79 12 35.
- **Bilbon ikasle-pisua osatu nahi nuke.** Tfnoa: 79 24 51. Nerea.
- **Hiru langile gara** Arrasaten alokatzeko pisu baten bila. Tfnoa: 79 51 49.
- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.

LANA

- **Klase partikularrak ematen dira:** euskara, gaztelania eta inglesa. Tfnoa: 77 04 98.
- **Itzulpen eta interpretari lanetarako kolaboratzaileak behar dira.** Edozein hizkuntza. Tfnoa: 77 04 98.
- **Emakumea etxeetan lan egiteko prest.** Tfnoa: 79 84 66.
- **Alemanezko klase partikularrak ematen ditut.** Tfnoa: 79 78 75.
- **Lanak makinaz pasatzen dira.** Tfnoa: 79 78 75.

- **Ingeleseko klase partikularrak ematen dira.** Talde murriztuak. Dei egin arratsalde 77 05 77 tfnora.
- **Emakumea edozein lan egiteko prest:** gaixoak zaindu, garbiketak, umeak zaindu, etxeko lanak egin... Tfnoa: 77 07 12.
- **Emakume euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 91 30.
- **Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke.** Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnora.
- **Bestaldeko irakasle batek frantseseko klase partikularrak ematen ditu.** Dei egin bazkalorduetan 79 20 24 tfno.ra.
- **OHoko klase partikularrak emateko prest.** Tfnoa: 79 19 19.
- **Klase partikularrak ematen dira** (fisika, kimika eta matematikak). Dei egin 77 13 95 tfno.ra.
- **Emakume euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Fisikako partikularrak behar dira** BT12. kurtsua. Tfnoa: 79 37 60.
- **Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 39 49. Iratxe Gonzalez.

SALEROSKETAK

- **Adria TY GRA karabana (4,10 m.) salgai.** Lau pertsonarentzako tokia, hozkailua etab. Garajea edukitakoa. Tfnoa: 79 93 06.
- **la berria den Atari 2600 kontsola bideoa salgai,** 160 joko ditu. Tfnoa: 78 31 51.
- **Amstrad Spectrum MSX eta PC-ko jokoak salgai.** Cassete-ko jokoaren prezioa: 1-150, 2-200, 3-225 eta hortik aurrera 25 PTA gehiago joko bakoita. PC-ko jokuen prezioa galdetu (Oso prezio interesgarriak). Interesatuek dei egin 79 42 95 tfnora. Sergio.
- **Egoera onean dagoen R5 GTLa salgai,** ITVa pasatuta, SS-G (Merke). Tfnoa: 79 37 40.

- **Hiru logela oso egoera onean salgai.** Prezio onean. Tfnoa: 77 04 98.
- **Ordenadore pertsonala salgai.** Eredua: Amstrad CPC 6128 diskete unitatekoa (Basic-endo berezia). Oparia: telebista bihurtzailearekin, jokuak eta bihurtzailera elkartutako iratzargailua. Dei egi 79 13 77 tfnora.
- **Kanpineko hozkailu berria salgai.** Dei egin 9etatik aurrera 79 90 55 tfno.ra.
- **Itzul eta Sor saileko liburuak salgai.** Merke eta berriak. 9-13 urte bitarteko haurrentzat. Tfnoa: 79 80 91. Ander.
- **Cibro-Kamin berogailua egoera oso onean salgai.** Tfnoa: 79 56 46.
- **Charli Mousser hamabi puntatako granpoiak,** Serval lo egiteko zalkua eta espelaz (boj) egindako napar dultzaina salgai. Tfnoa: 77 09 72

DENETARIK

- **Egunero Bilbora (Leioara) joateko kotxea behar dut,** gastuak erdibana. Dei egin gaueko 11etatik aurrera 79 66 99 tfno.ra.
- **Maritxu Kajoi gauean Gestoraren tabernan lanean nengoela txaketa beltz bat** (forro gabekoa) galdu nuen. Zuk hartu bazenuen dei egin mesedez 77 09 49 tfno.ra.
- **Asko maite dudun pultsera bat galdu zitzaidan** Maritxu gauean Kajoi eta Ederra tabernaren artean. Zilarrezkoa, handi samarra eta niretzat oso inportantea da. Mesedez, aurkitu baduzu dei egin 79 25 69 tfno.ra. Ines.
- **Abuztuaren 2an spaniel-breton arrazako txakurra desagertu zen.** Izena Mendi (txuria eta marroia da). Zerbait badakizu dei egin 79 24 66 tfno.ra.
- **Izazkun Undari zorianak 22 urte bete zituelako,** baita lana lortu duelako ere. Udal-Euskaltegiko lankideek.



**ARRASATEN
HILDAKOAK**



Maria Guadalupe Melendez Santos,
urriaren 11n. 73 urte.

Miguel Illarramendi Ibabe,
urriaren 12ean. 72 urte.

Juan Jose de Nova Sanchez,
urriaren 14an. 72 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Kontxi Juantorena Uxarte tabernakoa



- **Mendia ala hondartza?** Mendia.
- **Baserria, behiekin ala behi barik?** Behiekin.
- **Euskaraz ala erdaraz?** Euskaraz.
- **Entsalada mistoa ala arrunta?** Mistoa.
- **Arrautza gorriak ala zuriak?** Ezberdinak dira.
- **Pinudia ala pagadia?** Pagadia.
- **ETBko filmeak azpi-tituluekin ala barik?** Azpi-titulu barik.
- **Bezeroak, emakumezkoak ala gizonezkoak?** Gizonezkoak; beno, berdin zait.
- **Bazkalostean hitz eginez lasai egoteko, aitonarekin ala anai-arrebekin?** Aitonarekin, igual hobeto.
- **Beheko sua ala berogailu zentrala?** Beheko sua.
- **Kontuak ateratzeko, kalkuladoraz ala eskuz?** Kalkuladoraz, zeren eskuz jadanik gutxi egiten dugu.
- **Lo, bakarrik ala lagunduta?** Lo hobeto egiten da bakarrik. Orain... Bai, bakarrik, bakarrik!
- **Oskorria ala ortzadarra?** Oskorria.
- **Paperezko mukizapiak ala zetazkoak?** Paperezkoak.
- **Zizak ala gibelurdinak?** Bere garaian biak.
- **Irratia entzun ala liburua irakurri?** Irratia entzun.
- **Gauzak esateko, telefonoz ala aurrez aurre?** Aurrez aurre.
- **Udaberria ala udazkena?** Udaberria.
- **Eguzkia hartu ala gerizpetan egon?** Beno, berdin zait, biak ere ondo daude.
- **Arantzazu ala Loiola?** Arantzazu.
- **Bertsoak ala trikitixa?** Trikitixa.
- **Ardi-gazta ala behi-gazta?** Ardi-gazta.
- **Autobidearen auzian, A-2 edo A-4?** Ez dakit.
- **Egunsentia ala iluntzea?** Egunsentia.

Bertsotan

Nafarroa Oinez 91

Euskeran alde lana egin nahirik daude hainbat ekitaldi Atarrabia aldean dago Nafarroa Oinez adi euskaldun denok igandez hara joateko mila deialdi euskal eskola bultzatu asmoz lagun urreratu hadi denon indarrez bihur daiteke euskara hizkuntza handi.

Euskaldun-eskola publiko batez eginda mila aipamen horrelako bat sortu nahirikan gabiltza guztiok hemen borroka gabe ezin diogu erdaldunari egin men izan nahi dugu ikastola bat sortzeko beste ahalmen beraz behar da Atarrabian guztion lan eta kemen.

LEIRE BASAURI



ITURRIOTZ taberna

**GIRORIK
JATORRENA !!**


Tfnoa: 79 16 04



J. M. Heriz

**Konpromezurik gabeko
aurrekontuak**

Otalora Lizentziatua. Arrasate



Gurutzearen diseinua



Gurutzearekin Udalaitzen gora. 1971ko urriak 2

1

971ko urriaren 12an inauguratu zen Udalaitzeko gurutze berria. Gurutzeak, 10 metroko altuera dauka eta 250 kiloko pisua. Inauguraketa

urriaren 12an izan zen, 2.000 lagun Udalaitzen, baina lan handiena aurreko egunetan egin zen.

Irailaren 4ean, "Jan da lo" taldekoek burdinezko bi barrika, uralitazko txapak, eta zuloak zabaltzeko tresneria igo zuten gailurrera. Aipatutako taldea ia igandero Udalaitzera igotzen zirenek osatzen zuten. Ondorengo egunetan, gurutzea jartzeko zuloa egiteko, makina bat lan egin zuten Udalaitz gainean.

Zuloa egitearena ez zen egin beharreko lan bakarra, gurutzearen kokagunea arriskutsu samarra zela eta barandadoa ere jarri bait zen. Irailaren 26an, Jan Da Lo taldekoak gurutzearen luzeera bera zuen tubo batekin gailurreraino joan ziren, ibilbidea behar bezala



Gurutzearea zutik jartzen gailurrean. 1971ko urriak 2

prestatzeko. Urriaren 2an, adin guztietako 60-70 pertsona bildu ziren gurutzea gailurrera eramateko: aurretik 10-15 lagun soketatik tiraka, gurutzea alboetatik eramaten 20 lagun. Oinez

egindako minutu bakoitzeko, bi minutuko atsedenaldea, guztira bi ordu t'erdiko ibilbidea. Behin gurutzea igo eta gero, zutik jarri eta etxafleruak jaurti ziren. Ordurako ilun zegoen.

PUB HAIZEA

arrasate

ENARA
OSAGIRRIAK


Maalako Errabala, 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Gogor lan egin beharko duzu nahi horiek betetzeko. Besteak konbentzitzen emango duzu denbora gehiena. Azkenean beteko da bai zure asmoa. Jartzazu arreta pixka lagunarengan.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra


Hainbeste atsegin duzun giroa izango duzu inguruan. Ez da barre eta algararik faltako. Benetan gustora emango dituzu datozen egunak lagun-giroa gertu somatuko duzulako.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era


Zeure kasa ibiltzeko aukera izango duzu datozen egunetan. Zenbat balio duzun jakiteko une aproposa izango duzu. Laguna eta bion arteko harremanetan pipermin pixka bat jartzen saiatuko zara.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Pake eta armoniaren bila emango dituzu egunak. Ingurua oldarkorra izango da, baina saia zaitetz zeure barruan eraginik izan ez dezan. Tirabirak norberaren kalterako izaten dira.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra


Zorte ona izango duzu edozein arlotan, beraz hainbeste desira dituzun nahiak betetzeko egun aproposak dituzu. Maiteminduta zaude eta egoera honek poztu egiten zaitu.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Zure barruan aldaketaren bat ematen ari dela nabaritu duzu. Ohi baino maitagarriago egongo zara besteekin. Benetan maiteminduta egoteagatik izan liteke. On egingo dizu egoera honek.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Energiaz gainezka zaude, Gemini. Zeure eginbeharra betetzeko aprobetxa ezazu bakarrik, besteen nahietara makurtuta ibiltzek ez bait zaitu betetzen. Lanerako aukera interesgarriren bat suerta dakizuke.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Poltsikoak eskatzen dizuna baino gehiago gastatzeko joera izango duzu. Dena dela sarrera estraren bat suerta liteke lantxoren baten truke. Laguna eta bion arteko harremana sendotuz joango da.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Normalean baino gehiago kostako zaizu eginbeharra aurrera ateratzea. Stresatuta ibiliiko zara kasura ez datorren arduraren batengatik. Pentsatu bizimodua aldatuko dizun proiekturen bat.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Irudimena soberan duzu, Cancer. Baliteke norbait aukera honetaz baliatzea; zuhur jokatu beharko duzu, beraz. Zure finantzak kilikolo daude eta oreka daitezen saiatu behar duzu.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra


Liluragarri sentitzen zara eta ondo dago. Harrokerian erortzeko arriskua ere badago, argi beraz. Ideia orjinalak izango dituzu eta baliteke proiektu interesgarriren bat martxan jartzea.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Eraginkor egoten jarraitzen duzu, Piscis. Lasai betetzen duzu eginbeharra, asko mugitzea eskatzen badizu ere. Barne-pakea bezalakorik ez dago armonian bizi izateko. Segi horrela.



MIKEL ELORZA ETXEBARRIA

ASEGURU-ARTEKARIA

Zarugalde, 44 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 13 09

Mondra-Sport Astelehena, 9.15

Azken bi astelehenetan bezala, oraingoan ere Mondra-Sport saioa izango duzue ikusgai, 9.15etan hasita.

Asteburuetan kirol-munduan gertatutako enperasa zabala eskaintzeaz gain, hainbat erreportaiak, elkarrizketa, etab. izango duzue ikusgai programa honetan.

Telebegi

"Pito Pito gorgorito donde vas tu tan bonito a la axera verdadera Pim Pam fuera"

Esaldi baldar bezain ulerkaitz honek, atentzioa deitzeaz gain, badu beste-lako esanahi eta zentzurik. ATBk laster batean beharko du nolabaiteko kontseilu editorial edo antzekorik. Telebistaren edukin moral-ideologikoa neurtuko eta markatuko duen kontseilua.

Zein pelikula emititu, zein zentsuratu, zeintzuk izango dira horretarako erabiliko diren baloreak, beti ere pertsonal eta subjektiboak? Ez da ez lan erraza. Espresio askatasuna denok onartutako eskubidea da eta zerbaitzuk aldarrikatutakoa ere bai; baina filmeen kasuan, adibidez, noizbait gure telebista honetan emitituko balira noski, jarri beharko litzateke modu batera edo bestera autozentsura minimo bat. Baina zentsura hori ideologia edo moralaren aldetik etorri behar zaigunean, nork hartuko du erabaki hori, eta nork markatu hartu beharreko bidea? Kontseilu editorial horren beharra argi dago beraz; bide horretan, aurkituko al du noizbait ATBk goian aipatutako egiazko axera hori? Espresio-askatasuna segurtatu eta nolabaiteko bide ideologiko koherente baten artean dagoen tarte abstraktu hori? Ikusi egin behar. Gaia latza bezain sinplea da; Ranbo, bai ala ez ATBn? Noren esku erabakia?

ANDONI URZELAI

Telebelarri

◆ Atxabalpen kriston futbol zelaia, eta handik hirurehun metrotara gurea kaka bat eginda dago. Nik uste hori baino gehiago merezi dugula".

(Iñaki Mendizabal, Rugby taldeko jokalaria, *Berriak* saioan).

◆ Hasieran normalizat jotzen soldaduzkara joatea, baina gaur egun ez, gazteek ez dute joan nahi eta horregatik aritzen dira irtenbide ezberdinen bila".

(Jon Ancin, Arrasateko Kakizat-ekoak, *Berriak*-en).

Programazioa

20

IGANDEA

9.30etan, *Mondragol*. Mondra-Tolosa partiduaren ordu erdiko laburpena.

21

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albiste-emanaldia. 9.15etan, *Mondra Sport*. Arrasateko Kirol-munduen errebasua.

22

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Egunean zehar jasotako berriak. 9.15. *Erreportaiak*. Asteartero bezala, honakoan ere bi erreportai interesgarri izango dituzue ikusgai.

23

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albistegia. 9.15. *Erritmoaren Festa*. Larunbatean Monterronen egingo den jaialdiari buruzko laburpena.

24

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Albistegia.

25

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Egunean zehar bildutako albiste bilduma. 9.15etan, *Erretratoa*. J.R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa saioa. Gonbidatua: Jose Antonio Villar, musikari-ohia eta ikus-entzunezkoen munduan jarduten duena.



WORLDWIDE COURIER

HIRI ETA ESTATU BARNEKO ETA NAZIOARTEKO

BIDALKETAK

• HIRI BARNEKO ZERBITZUA

* Furgoneta zerbitzua (400 Kg.)

* Furgoneta zerbitzua (1.200 Kg.)

• ESTATU BARNEKO ZERBITZUA

* Gau eta egun

• NAZIOARTEKO ZERBITZUA

* Courier zerbitzua

* Aire-karga zerbitzua

* Itzulpen zerbitzua

ARRASATE

Bizkaia Hirib. 26, Tfnoa: 79 96 97

EIBAR

Urkizu Pas. 24 B, Tfnoa: 12 09 50

AZPEITIA

Landeta Auz. z/g Tfnoa: 81 54 08

DURANGO

Maspe 10-B, Tfnoa: 94-620 01 62

INFORMAZIOA
900 300 400

ALBACETE, Batalla del Salado, 37. T. 967-22 75 53 - **Almansa**, Aniceto Coloma, 40. T. 967-34 58 58 - **ALICANTE**, C/A Fuentes de Alipark, loc. 3. T. 96-510 05 33 - **Alcoy**, Entenza, 46. T. 96-552 55 66 - **Benidorm**, Lepanto, loc. 30. T. 96-586 53 11 - **Elche**, Avd. Libertad, 123. T. 96-544 21 01 - **Elda-Petrel**, José Martínez González, 89. T. 5385 9 98 - **Torreveja**, Avd. Diego Ramirez, 223. Ecuenter. T. 96-571 73 91 - **ALMERIA**, Santa Isabel, 62. T. 951-25 09 88 - **El Ejido**, Alvaro Soto Mayor Gal. Cial. T. 951-48 36 13 - **Huerca Overa**, Crta. Nacional 340, Edif. Davinia, 2. T. 951-47 13 13 - **ANDORRA**, Carlemany, 105. T. 973-8-26300 - **AVILA**, Avd. de la Juventud, 6. T. 918-2112 67 - **BADAJOS**, Av. Juan Sebastián Elcano, 5 A. T. 924-25 50 51 - **Don Benito**, San Francisco, 30. T. 924-84 33 07 - **Mérida**, José María Pemán, 3. T. 924-31 94 49 - **PALMA DE MALLORCA**, Andrea Doria, 8. T. 971-23 21 41 - **Inca**, Edisson, 1. T. 971-50 37 11 - **Manacor**, Av. Salvador Juan, 86. T. 971-55 57 74 - **Ibiza**, España, 30. T. 971-30 16 00 - **Formentera**, Crta. Pujol, s/n. T. 971-32 24 18 - **Ciudadela**, Camí d'es Degollador, 87. T. 971-38 05 12 - **Mahón**, Av. Anselmo Clavé, 56. T. 971-35 05 12 - **BARCELONA**, Casanova, 79. T. 93-323 32 05 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Palacio de Congresos - **Boulevard Rosa**, Pº. de Gracia, 55-57 - **Centro "La Caixa"**, Diagonal, 635 - **Cristal**, Gran Vía, 1176 bis - **Jonqueras**, Jonqueras, 2 - **Mercurio**, Vía Augusta, 59 - **Nerviñ**, Vía Layetana, 20 - **Windsor**, Vía Augusta, 2 - **Financia**, Pau Claris, 162-164 - **Pallars**, Pallars, 85-91 - **Colón**, Drassanes, 6-8 - **Mercabarna**, Esc. C Edificio Oficinas - **Hipercor**, Meridiana, 354 - **Padilla**, Padilla, 205 - **Carlos III**, Sabino de Arana, 32 bis. bjos. - **Badalona**, Marqués de Mont Roig, 126. T. 93-388 51 51 - **Barberá**, Pso. Moragas, 256. T. 93-718 36 52 - **Berga**, De la Sardana, 27. T. 93-874 12 98 - **Cornellá**, Crta. Sant Boi, 9. T. 93-377 22 00 - **Granollers**, José Umberto, 58. T. 93-870 06 12 - **Hospitalet**, Plza. Maestro Clavé, 6-8. T. 93-337 01 00 - **Igualada**, San Ferrán, 22. T. 93-804 24 11 - **Manresa**, Crta. Pont Vilomara, 17. T. 93-874 12 12 - **Mataró**, Rda. Antoni Comas, 24. T. 93-798 34 57 - **Mollet**, Cayetano Ventallo, 87. T. 93-570 47 52 - **Pineda**, Santiago Rusiñol, 11. T. 93-762 69 69 - **Polinyà**, Mayor, 5-7. T. 93-726 72 20 - **Premia**, De la Plaza, 36. T. 93-752 10 55 - **Rubi**, Avd. Catalunya, 4. Edif. Iris. T. 93-697 03 66 - **Sabadell**, Rosales, 18. T. 93-726 43 77 - **S. Andrés B.**, Plza. Iglesia, 1. T. 93-653 24 51 - **Tarrasa**, Balmes, 19. T. 93-789 22 22 - **Vic**, Av. Martí Genis Aguilar, 25. T. 93-885 62 50 - **Villafranca**, Arbós, 14. T. 93-890 35 40 - **Villanueva**, Gornal, 13. T. 93-815 19 60 - **BILBAO**, General Eguía, 7. T. 94-443 76 08 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona Servicios - **Cámara de Comercio**, Alameda Recalde, 50 - **Bermeo**, Reina Zubi, 17. T. 94-688 19 04 - **Durango**, Maspe, 10. T. 94-620 01 62 - **Guernica**, Bº. Txaporta, 3. T. 94-685 55 00 - **BURGOS**, Comuneros Castilla, 19. T. 947-23 66 11 - **Miranda**, Reyes Católicos, 14. T. 947-31 06 40 - **CACERES**, Sta. Luisa Marillac, 16. T. 927-21 06 34 - **Plasencia**, Rda. Salvador, 71. T. 927-41 26 09 - **CADIZ**, Guadix, 3. T. 956-25 75 61 - **Algeciras**, Urb. Dña. Casilda, bloq. 10. T. 956-65 35 61 - **Ceuta**, Gral. Aranda, 10. T. 956-52 18 01 - **Jerez F.**, Pso. Delicias, 5. T. 956-34 01 11 - **LAS PALMAS**, San Diego de Alcalá, 12. T. 928-36 55 77 - **Fuerteventura**, Avd. 23 de Mayo, 3. T. 928-85 07 17 - **Lanzarote**, Avd. Mancomunidad, 4. T. 928-81 67 14 - **Playa del Inglés**, Centro Comercial Nillo, loc. 1030 - T. 928-76 66 53 - **TENERIFE**, Ramón y Cajal, 50. T. 922-28 34 54 - **CASTELLON**, Maestro Falla, 7. T. 964-22 87 99 - **Benicarló**, Del Pilar, 10. T. 964-47 47 79 - **Val de Uxú**, Plaza Villavieja, 6. T. 964-66 71 11 - **CIUDAD REAL**, Parque Residencial Rda., bl. 11. T. 926-25 24 66 - **Puertollano**, Pso. San Gregorio, 1 Bl. B. T. 926-43 00 50 - **Valdepeñas**, Amparo, 18. T. 926-32 17 32 - **CORDOBA**, Avd. Libia, s/n. T. 957-26 86 00 - **Lucena**, Hoya del Molino, 6. T. 957-59 13 71 - **Pozoblanco**, Dr. Antonio Cabrera, 8. T. 957-10 26 20 - **CORUÑA**, Primo de Rivera, 11. T. 981-24 45 33 - **Ferrol**, Perbes, 16. T. 981-32 02 00 - **Santiago C.**, Pasadizo Brion, 11. T. 981-56 22 55 - **Riveira**, Ramón y Cajal, s/n. T. 981-87 22 12 - **CUENCA**, Colón, 73. T. 966-22 92 21 - **GERONA**, Andrés Tuyet Santamaría, 13. T. 972-21 55 66 - **Figueras**, Verge Maria, 6. T. 972-50 27 66 - **Junquera**, Crta. Nacional 11, Km. 11. T. 972-54 05 05 - **Olot**, Pare Roca, 8. T. 972-26 58 58 - **Palamós**, Iglesia de Sant Joan, 6. Tel 972-31 86 00 - **Puigcerdá**, Pla del Fort, 4. T. 972-88 14 51 - **GRANADA**, Trucha, Edif. Victoria, 3. T. 958-29 34 38 - **GUADALAJARA**, Angel Ma. de Lera, 4. T. 911-21 58 16 - **HUELVA**, Fernando el Católico, 4. T. 955-25 70 12 - **Ayamonte**, Joaquín González Saez, s/n. T. 955-32 19 57 - **HUESCA**, Concilio de Ibon, 14. T. 976-49 96 61 - **JAEN**, Avd. Madrid, 25. T. 953-26 53 04 - **LEON**, Cipriano Huerga, 14. T. 987-21 15 11 - **Ponferrada**, Tras de la Bóveda, 12. T. 987-41 82 51 - **LERIDA**, Avd. de las Garrigas, 13. - T. 973-20 57 58 - **Tárraga**, Dr. Riu, 7. T. 973-31 30 68 - **Viclla**, Av. Pas d'arro, 5. T. 973-20 57 58 - **LOGROÑO**, Jorge Vigón, 28. T. 941-25 79 66 - **Calahorra**, Bebricio, 41. T. 941-13 30 66 - **LUGO**, Amor Meilán, 14. T. 982-24 13 61 - **Foz**, Méndez Val, 8. T. 982-13 21 02 - **MADRID**, Ros de Olano, 7. T. 91-413 62 14 - **Receptorías Urbanas: Gran Vía**, Gran Vía, 67 - **Indubuilding**, Vía de los Poblados, 9 y 11 - Nº. 3. Sor Angela de la Cruz, 24 - Nº. 4. Cedaceros, 9 - **La Caixa**, Pº. Castellana, 51 - **División Internacina**: Coslada, 15. T. 91-246 26 00 - **Alcobendas**, Pintor Velázquez, 10. T. 91-653 50 66 - **Arganda**, Crta. Valencia, Km. 25.8. Nave 38. T. 91-871 44 91 - **Majadahonda**, F. García Lorca, s/n. Urb. Delta. T. 91-638 78 97 - **Getafe**, Avd. Ciudades, 92. T. 91-681 14 14 - **Móstoles**, Castellón, 15. T. 91-617 64 63 - **San Fernando**, Sierra Albarracín, loc. 33. T. 91-656 21 13 - **MALAGA**, Urb. Santa Cristina, loc. 6. T. 952-34 07 00 - **Fuengirola**, Miguel Unamuno, s/n. L.3C. T. 952-46 30 00 - **Marbella**, Terrazas, P-3, loc. C. T. 952-82 61 61 - **Melilla**, Carlos de Arellano, 22. T. 952-68 38 47 - **Nerja**, Chaparil, s/n. T. 952-52 14 90 - **Ronda**, Villanueva, 21. T. 952-87 69 49 - **Torredelmar**, Urb. Pueblo Rocio, bloque 1. T. 952-54 05 84 - **MURCIA**, Pza. de las Balsas, 3. T. 968-21 00 31 - **Cartagena**, Licenciado Cascales, 10. T. 968-52 72 88 - **Lorca**, Avd. Juan Carlos I, Edif. Goya. T. 968-46 43 00 - **ORENSE**, Greco, 25. T. 988-24 34 00 - **OVIEDO**, López del Vallado, 7. T. 985-20 11 11 - **Avilés**, Llano Ponte, 56. T. 985-55 10 11 - **Gijón**, Peñora, 9. T. 985-35 11 11 - **PALENCIA**, Los Robles, 24. T. 988-74 79 77 - **PAMPLONA**, Pedro I, 19. T. 948-27 70 11 - **Tudela**, Díaz Bravo, 1. T. 948-82 19 17 - **PONTEVEDRA**, Trav. V. C. Mercadillo, G. Venecia, T. 986-84 43 12 - **Lalín**, Corredoira, 40. T. 986-78 17 44 - **Vigo**, Couto Pineiro, 6. T. 986-41 51 00 - **Vilagarcía**, San Roque, 15. T. 986-50 43 33 - **SALAMANCA**, Bolívar, 10. T. 923-23 14 62 - **Fuentes Oñoro**, Doctor Fleming, 28 A. T. 923-47 32 82 - **SAN SEBASTIAN**, Pso. Vizcaya, 17. T. 943-46 40 55 - **Azpeitia**, Polig. Ind., 35, Barrio Landeta. T. 943-81 54 08 - **Eibar**, Pso. Urquiza, 24. T. 943-12 09 50 - **Irún**, José Eguino, 14. T. 943-61 25 41 - **Mondragón**, Avd. Vizcaya, 16. T. 943-79 96 97 - **Tolosa**, Av. Alava, s/n. Bl. 2. T. 943-65 41 24 - **SANTANDER**, San Celedonio, 11. T. 942-22 52 72 - **Torrelavega**, José Luis Hidalgo, 5. T. 942-89 74 16 - **SEGOVIA**, Av. Fdez. Ladrada, 28. G. C. Loc. 10. T. 911-44 00 55 - **SEVILLA**, Alejo Fernández, s/n. T. 954-42 05 11 - **Receptorías Urbanas: Sevilla-2**: Francisco Javier, 9 - **Torre de los Remedios**, Rep. Argentina, 24 - **Estepa**, Sevilla, 48. T. 954-42 00 08 - **SORIA**, Postas, 27. T. 975-22 60 96 - **TARRAGONA**, Mar, 19. T. 977-22 25 22 - **Amposta**, Mayor, 28. T. 977-70 52 04 - **Reus**, Roseta de Sales, 40. T. 977-34 54 54 - **Tortosa**, Nova de Vall, 1. T. 977-44 67 13 - **Valls**, Sta. J. Vedruna, 7. T. 977-60 66 11 - **TERUEL**, Urb. La Guía, D. 8. T. 974-60 85 18 - **TOLEDO**, Avd. Sta. Bárbara, 10. T. 925-21 44 04 - **Talavera**, Aragón, 6. T. 925-800 82 87 - **VALENCIA**, Dr. Beltrán Bigorra, 7. T. 96-341 44 22 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona de Servicios-Zona Este y Oeste - **Alicia**, Plza. Sagrada Familia, 8. T. 96-241 99 04 - **Gandia**, Mayor, 44. T. 96-287 31 70 - **Játiva**, Escultor Esteve, 5. T. 96-227 23 34 - **Onteniente**, Dos de Mayo, 95. T. 96-238 80 62 - **Requena**, Plza. Janini, s/n. T. 96-230 24 69 - **Sagunto**, Los Huertos, 89. T. 96-266 59 89 - **VALLADOLID**, Málaga, 10. T. 983-39 23 44 - **VITORIA**, La Florida, 58. T. 945-28 57 00 - **Llodio**, Solocelai, s/n. T. 94-672 56 66 - **ZAMORA**, Arapiles, 26. T. 988-52 10 99 - **ZARAGOZA**, Miguel Servet, 128. T. 976-49 95 11.



-ko kide

-ko kide